



## Hainbat urteren ondoren, Geu Bek lokal egonkorra lortu du

**Durango** • Geu Be elkarteko kideek lokal berria inauguratzeko jaia egingo dute uztailaren 1ean. Elkarteak urte asko egin ditu egonkorra eta behin betikoa izango den lokala lortzeko borrokan. • **2**



## Gaur hasiko da Haizetararen 16. edizioa, Zornotzan

**Kultura** • Euskal Herriko eta nazioarteko bederatzi talde lehiatuko dira kaleko musikaren jaialdi entzutetsuan. • **25**



# Aro politiko berri bat Durangaldean

Esperotako eta espero bako aliantzak, indar aldaketak... Ekainaren 17ko udaletako kargu hartzeek eszenatoki politiko berri bat sortu dute. Durangon, Mireia Elkororibe jeltzalea izendatu dute alkate, PSE-EEren eta PPren babesari esker. Kargu hartze honek ikusmin handia piztu du. • **10-13**





Geu Beko kideak pozik daude, behingoz egoitza egonkor bat izatea lortu dutelako.

## Geu Be elkarteko kideek lokal berria inauguratzeko jaia egingo dute uztailaren 1ean

Elkarteak Intxaurrendoko eskola zaharretan dauka lokal berria. Mudantza amaitzeko oraindino kontu pare bat falta zaien arren, hasita daude espazio propio berriari etekina ateratzen. Geu Bek atek zabaldu dizkio ANBOTOri

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Gazte kuadrilla bat mahai jolasetan dabil olgetan. Partxisean batzuk, Uno deituriko karta-jokoan beste batzuk. Handik metro gutxira, bideo kontsolagaz jokatzen dabil beste taldetxo bat. Sofa erosoan jesarrita, pelikula bat ikusten dabil beste lagun pare bat, eta handik bost-sei metrora puzzle bat osatzeari ekin diote beste bik. Halakoxea da astelehen arratsalde bat Geu Be elkarteko kideen ludotekan. Elkarteak lokal berria

estreinatu du eta begi bistakoa da gazteak oso erraz egokitu direla egoitza berrira. Orain bi-hiru aste egin zuten lekualdaketa Kuru-tziaga kaleko Garai jauregitik Intxaurrendoko eskola zaharretara. Oraindino ez dituzte mudantza lan guztiak amaitu; besteak beste, ordenagailu batzuk eramatea falta zaie, baina elkarteko kideak hasita daude lokal berriari etekina ateratzen. "Niretzat oso inportantea da hau. Oso pozik egoten naiz hemen, lagun mordoa dut", azaldu du Ivan

Torres elkartekideak. Maritxu Gonzalezek ere antzerako berbekin deskribatu du lokal berria. "Hemen denerik dugu. Mahai jolasak lokal barruan eta ping-pongian ibiltzeko mahaia zein futbol zelaia kanpoaldean", dio.

"Lokal berri honetan, lehen ez geneukan zerbait daukagu: kanpoko eremua. Eremu horrek hainbat aukera ematen digu ekintzak bertan egiteko. Futbol zelaia dago, berdegunea, eta euritik babesteko aterpe bat ere bai. Barruko lokalean

egiten ditugun ekintzez gainera, kanpoko eremu horrek joko handia ematen digu", azaldu du Julen Bengoa Geu Be elkarteko koordinatzaileak. Gainera, eremu berria herriko beste hainbat elkartegaz partekatzen dute eta horrek ate bat zabaltzen dio denen artean "sinergiak sortzeari".

**20 urteko bidea**

Geu Bek urte asko egin du egonkorra eta behin betikoa izango den lokala lortzeko borrokan. Elkarteak

San Faustoko eskola zaharretan ekin zion bere ibilbideari, 2003an. Urte batzuk han egin ostean, Garai jauregira lekualdatu ziren. Orain lau bat urte Pinondo Etxera joateko ideia zuten buruan, baina asmo haiek bertan behera geratu ziren Durangoko Udalak eraikina zarratu behar izan zuenean. Garai jauregian egon dira lokal berriaren zain, harik eta Intxaurrendon lur hartu duten arte. Orain bai, etxean daude. Bengoak dioten moduan, elkartearen "espazio propioan". Pozik daude, eta, betiko moduan, elkarte-kideei aisialdian eta inklusioan


**"Lokal berriak lehen ez geneukan zerbait dauka: ekintzak kanpoan egin ahal izateko eremua"**

laguntzeko prest. Baita Durangoko zein eskualdeko herritarrei pertsonen gaitasunak askotarikoak izan daitezkeela adierazten.

**Inaugurazioa uztailaren 1ean**

Egoitza berria normaltasun osoz erabiltzen hasi diren arren, azken ukitu batzuk egitea baino ez zaie falta. Horren ondoren, behar den moduko inaugurazio jaia egingo dute. Julen Bengoa koordinatzaileak aurreratu duenez, uztailaren 1ean izango da jai hori. "Egun horretan komunikatuko diegu durangar guztiei hemen daukagula gure espazio berria, Intxaurrendon", azaldu du. Ivan Torres eta Maritxu González elkartekideek aurreratu dutenez, "musika kontzertuak eta sorpresak" egongo dira. Luntx berezi bat ere izango dute.

Inaugurazioa egiteko astebeterean faltan, Geu Beko kideek atek zabaldu dizkiote ANBOTOri. Bideo erreportajea [anboto.org](http://anboto.org) atarian dago ikusgai.



Bost dorreak eraikitzeko proiektuaren infografia.

## Auzitegiak "legez kanpokotzat" jo du bost dorreen proiektuaren urbanizazio programa

Herriaren Eskubideak eman du epaiaren berri. Lau urteko prozesuaren ondoren, auzitegiak "arrazoia eman" diela diote

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Herriaren Eskubideak orain lau urte baino gehiago hasitako prozesu judizialaren epaia jaso du asteon. Durangoko alderdi independentearen esanetan, auzitegiak "legez kanpokotzat" jo du bost etxebizitza dorreen Urbanizazio Jardueraren Programa, eta, horrenbestez, aurrerantzean "Durangok trenaren lurretarako zer proiektu gura duen erabaki ahal izango du". Kontua atzeragotik dator. Izan ere, orain

lau urte pasatxo, Herriaren Eskubideak auzitegietara eraman zuen Durangoko erdigunean, garai bateko tren geltokiaren orubean, bost etxebizitza dorre erraldoi eraikitzeko proiektua. Orduko hartan, dorreak eraikitzeko proposamena "legez kanpokoa" zela iritzi zion alderdiak, eta orain auzitegiak arrazoia eman diola dio. Era berean, "gaur egun" 5 dorreen proiektua "defendatzen jarraitzea" leporatu die EAJri eta PSE-EEri.

Durangoko Udal eratu berriak prentsa oharrean jakinarazi du "lehenbailehen" batuko dela Euskal Trenbide Sareagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz. Udalak honako hau adierazi du hedabideetara bidalitako oharrean: "Trenbidearen PERIaren espazioa oso garrantzitsua da Durangoren etorkizunerako, eta, beraz, gune hori guztia lehenbailehen berreskuratzeko lan egingo du udalak, durangarrek dituzten beharri-zanei erantzungo dien eta babes zabala lortuko duen proiektu batez".

# Funanbulisten eta akrobaten 'Volatineros' ikuskizuna egingo dute zapatuan, San Rokeko sanjoanetan

Ekitaldia 20:00etan hasiko da, San Roke ermitaren ondoko aparkalekuan. Tabiran ere auzoko jaiak antolatu dituzte asteburu honetarako eta hurrengorako. Domekan ekingo diete ekitaldiei, mendi lasterketa bat eta mendi martxa bat eginda



'Volatineros' ikuskizuneko irudia. NOSTRAXLADAMUS

## DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Urtero lez, Tabirako jai batzordeak ekimenez beteriko egitaraua presatu du. Aurtengo nobedade bat ekainaren 30eko barikuan egingo duten DJ maratoi herrikoia da. Aurretik gaztetxean eta Durangoko jaietan, txosnagunean, antzerako DJ maratoiak egin dira eta handik hartu dute ideia. Musikariei euren lana erakusteko espazio berri bat eskaintzea dute helburu. Jaietako beste nobedade bat uztailearen 2ko domekan izango da: umeentzako goitibeherak egingo dituzte. Antolatzaileek goitibehera batzuk ipiniko dituzte eta gura duenak berea eraman ahal izango du.

Jaietako lehenengo ekimenak, baina, domeka honetan izango dira. Mendi martxa bi (ibilbide luzeak

18 kilometro izango ditu, eta laburrak 11) eta mendi lasterketa bat (18 kilometro) egingo dituzte. Martxa luzeak eta mendi lasterketak ibilbide bera dute. Tabiratik Izurtzara joango dira, Bitañoko kanposantu ondotik, eta handik Neberondora eta Santa Luziara. Mendi martxak 08:30ean hasiko dira, eta mendi lasterketa 9:30ean. Ondoren, Eixu artisauen elkarteak azoka egingo du Tabiran. 11:00etan izango da. Datorren asteburuan jaiekin jarraituko dute auzoan. Bakarrizketak, marmitako txapelketa eta erromeria izango dituzte, besteak beste.

## Funanbulistak San Roken

Barikuan eta zapatuan sanjoanak ospatuko dituzte Durangoko San Roke auzoan. Ekimenetariko bat *Volatineros* ikuskizuna izango da. Soka gainera igota, hamar metroko garaieran, akrobatek oreka erakustaldia egingo dute. Ikuskizuna zapatuan izango da, 20:00etan. Tabirako eta San Rokeko egitarauak [anboto.org](http://anboto.org) atarian kontsultatu daitezke.

## Durangaldeko Etxebizitza Sindikatua aurkeztuko dute ekainaren 29an

Aurkezpena Durangoko Ibaizabal ikastetxean izango da, 18:30ean. Berbaldia eta panel informatiboak egingo dira

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko Kontseilu Sozialistak dinamika berri bat hasiko du egunean, etxebizitzaren arloan izaten diren askotariko problematikei aurre egiteko. Tresna berri bat sortu dute horretarako, Etxebizitza

Sindikatu, eta haren aurkezpen publikoa egingo dute Ibaizabal ikastetxean. Aurkezpena 18:30ean izango da. Besteak beste, eskualdeko etxebizitzaren egoerari buruz berba egin eta sindikatuaren eginbeharrak azalduko dituzte.



Etxebizitza Sindikatua aurkezteko ekitaldia Bilbon, ekainaren 10ean. GEDAR

## Laja II.aren eta Lutxurdioren erromeria eta paella txapelketa

Garaiko Udalak eta Jai Batzordeak San Joan Momoitioko jaiak antolatu dituzte asteburu honetarako. Barikutik domekara izango dira jaiak, ekainaren 23tik 25era

### GARAI • EKAITZ HERRERA

Iluntze honetan bertan ekingo diete ospakizunei. Donien Atxa altxatu ostean (20:30), afaria izango dute Momoitioko ermitaren bueltako zelaian (21:30). San Joan bezperako gau giroa Laja II.a eta Lutxurdio trikitilariak ipiniko dute, suaren ondoan. Zapatuan meza izango dute (11:30) eta hamaiketako gero. Domekan, kuadrilla giroan ospatuko dituzte jaiak. Mezaren eta dantzarien ondoren (10:30), igel-jokoaren tokiko txapelketa eta oilasko paella txapelketa izango dituzte. Garaiko Udalak eta Jai Batzordeak antolatu dituzte jaiak.



Lutxurdio eta Laja II.a trikitilariak. MAXIXATZEN

bertako  
igogailuak | ascensores

**HARRO!**  
[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)

## “Hontza Museoan hasi arte, ornitorrinko bat bertatik bertara ikusi barik nengoen”

Leire Badiola Irazabalek (Ibarrangelu, 1999) Ingurumen Zientzia Ikasketak egin ditu eta Hontza Museoan lan egiten du martxo amaieratik. Pozik dabilela eta asko ikasten ari dela dio



Leire Badiola Mañariko Hontza Museoan.

**MAÑARIA • J.D.**

### Zelako esperientzia izan da orain arte?

Oso ona. Oso pozik nabil eta asko ikasi dut. Astelehenetik barikura egoten naiz bertan. Eskoletako bi-

sitak daudenean museoa erakusten diet eta Enrike Huertari [museoko arduraduna] bere zereginetan laguntzen diot.

**Umeei zientzia 'saltzea' ez da erraza**

### izaten batzuetan. Zelan moldatzen zara?

Umeak datozenean, gauzak ipuin kontalaria banintz lez kontatzen ahalegintzen naiz eta horrek lan-

keta bat eskatzen du. Baina museoak berak berez ere osagai asko du gaztetxoek arreta erakartzeko. Esaterako, sarreraren dugun jirafagaz harritura geratzen dira normalean.

### Eta zerk erakarri zuen zure arreta museoan lehenengoz sartu zinenean?

Munduko karramarro handiak. 2,90 metro neurtzen du eta hemen dugu, sarreraren ondoan. Eta hona etorri arte, ornitorrinko bat bertatik bertara ikusi barik nengoen. Pieza bi horiek harritu ninduten bereziki.

### Museoan dagoen zer eramango zenuke etxera?

Tarantula bat, eskorpioi bat... etxean sartu eta segituan jendearen arreta erakarriko lukeen zerbait.

### Zelakoa da Enrikegaz lan egitea?

Beti umoretsu dagoenez, oso erraza da beragaz lan egitea. Gainera, ondo elkar hartzen dugu. Donazioak ditugunean lana banatzen dugu. Esaterako, orain hiru aste intsektu batzuk jaso genituen eta eurak sailkatzen aritu ginen; argazkiak ateratzen eta datuak sartzen.

### Erakusketa berriren bat prestatzen zabilzate?

Datorren ikasturteko erakusketa prestatzen gabilta. Hezurdurei buruzkoa izango da: garezurrak, masailezurak...

## Izurtzako Santa Ageda jaian taberna kudeatzeko izen-ematea, zabalik

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako jaietako jai egun bat Santa Ageda ermitaren inguruan izaten da eta aurtengoa irailaren 3an egingo dute. Egundorretan, ermita inguruan taberna lez erabiltzen duten atepa bat dago eta udalak tabernaren kudeaketa lehiaketara ateratu berri du egundorretara begira. Interesdunak Izurtzako

### Interesdunak udalagaz hartu-emanetan ipini behar dira ekainaren 30a baino lehenago

Udalagaz hartu-emanetan ipini behar dira ekainaren 30a baino lehenago. Azkenengo urteetan Durangaldea Angelman Sindromea elkarteko kideek kudeatu izan dute taberna. Elkartearantz finantziarioa lortzeko eta elkartea ezagutzeko erabiltzen dute aukera hori.

## Umerezko bakarrizketa saioa, gaur, Otxandiko plazan

'40 urte eta aldapan behera niek' izeneko bakarrizketa saioa egingo du Ion Martinez 'Txiki' umoristak

**OTXANDIO • J.D.**

40 urte egitea denboraren joanaren eta bestelako bizimodu baterako aldaketaren paradigma lez hartzen du jende askok. Premisa horri umoretik helduta, Ion Martinez 'Txiki' umoristak 40 urte egitearen ajeak bakarrizketa batean batu ditu. '40 urte eta aldapan behera niek' izeneko proposamena gaur egongo da ikusgai, 18:00etan, Otxandioko udaletxe ondoko plazan. 'Txiki'-k

20 urtetik gora daramatza Stand Up estiloko komedia egiten, eta hainbat jaialdi esanguratsutan parte hartu du: Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdian, Iruñeko Umore zikloan... Bere ibilbidean 800 emanaldi baino gehiago egin ditu eta telebista saioetan eta irrati programetan ere parte hartu du. Sariak ere irabazi ditu. Iaz Poltsiko Sorkuntza Saria eskuratu zuen.

## Bertsolariak, kontzertuak, lehiaketak eta gehiago Mallabiko Goita auzoko jaietan

Gaur arratsaldean hasiko dituzte jaiak, txopoa jasota, eta domekara bitartean hamaika ekimen egingo dituzte

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko Goita auzoan San Joan jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Goita auzoko jai batzordeak ekimenez beteriko asteburu antolatu du, udalak eta Zumarra elkarteak lagunduta.

Urteroko ohiturari eutsiz, txopoa jasota abiatuko dituzte jaiak, gaur, 20:00etan, eta ondoren bertso afari baten bueltan batuko dira, Beñat Ugartetxea eta Sustrai

Colina bertsolariekin. Zapaturoko, 17:00etan, loreak batzeko ibilaldia prestatu dute. Horren ondoren, 19:00etan, dantzarien emanaldia egongo da, ermitan egingo den mezaren aurretik. Meza ostean luntxa egongo da bertaratzen direnentzat, eta tortilla lehiaketa ere egingo dute. Bi tortillarik onenek bertako produktuekin osaturiko otzarak jasoko dituzte opari. Aiama taldearen rock doi-

nuekin —22:00etan— eta DJ Karra Balloren musikagaz emango diote errematea egunari.

### Domekan, bertso-kantua

Domekan ere badago zegaz gozatu. Esaterako, 17:00etan, bola-jokoan aritzeko aukera egongo da, eta lehenengo hirurek saria jasoko dute. Ondoren, Aritz eta Iruñek bertso-kantu saioa egingo dute eta bertaratzen direnen artean txokolatea banatuko dute. Igel eta toka jokoekin amaituko dituzte aurtengo sanjoanak.

**anboto**

**Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

**2023ko ekainaren 23a  
21. urtea - 941 alea**

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Maria Alarconen kartelak iragarriko ditu Karmen eta Santanatu jaiak

Marrazketa digitalaren teknika erabilita, egileak jaietako ikurrak diren marmitakoa, buruhandiak eta danborrada irudikatu ditu, herriko sinbolo diren beste batzuekin

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak asteon argitu du zein kartelak iragarriko dituen Karmen eta Santanatu jaiak. Maria Alarconek irabazi du aurtengo kartel lehiaketa. Marrazketa digitalaren teknika erabilita, jaietako ikurrak diren marmitakoa, danborrada, buruhandiak eta Zor Hontza

irudikatu ditu, herriko sinbolo diren patatagaz eta udaletxeagaz nahastuta. Ainhoa Salterain alkatetza azaldu duenez, "artistaz, diseinatzailez eta argazkilariz" osaturiko epaimahaiak aukeraketa bat egin zuen lehiaketara aurkezturiko kartelen artean. Hain zuzen ere, epaimahai horrek hiru kartel au-

keratu zituen, eta gero herritarrek aukeratu dute hiru diseinu horien artean kartel irabazlea, boto bidez.

Alarcón zornotzarra da eta 24 urte ditu. Kartel irabazleari esker 1.000 euroko saria eskuratu du. Arte Ederrak ikasitakoa da eta gaur egun ilustrazio zientifikoari loturiko masterra dabil egiten.



Maria Alarcón kartel egilea eta Ainhoa Salterain alkatea.



Ekainaren 30etik uztailaren 2ra jokatu da txapelketa, Padelko klubean.

## Padel torneo solidarioa egingo dute Iurretan

Padelko klubak antolaturiko txapelketagaz, dirua batu dute Río de Oro elkartearen proiektuak babesteko

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Padelko klubak antolatuta, padel torneo solidarioa egingo dute ekainaren 30etik uztailaren 2ra. Ekimenak Río de Oro elkartearen hainbat proiektutan laguntzea du helburu. Bada, izen-emateekin lorturiko diruaren laurdena errefuxiatu sahararrei laguntzeko izango da;

baita euro bati salgai ipinitako errifagaz baturiko dirua ere.

Lau maila egongo dira (emakumeak, gizonak, mistoa, eta gurasoak eta seme-alabak) eta izen-emate bakoitza 20 euro dira (maila bitan jokatu gero, 25 euro). Ekainaren 28ra arte eman daiteke izena, Padelkon (608 701 437 / info@padelko.com).

**BETI GERTU!**

**HEMENDIK ELORRIORA**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaurtik domekara bitartean, San Joan jaiak ospatuko dituzte Axpen. Jaiak ofizialki txopoa jasota hasiko dituzten arren, goizean goizetik izango dute jai giroa bertan. 11:30ean meza nagusia egongo da, eta 13:00etan luntxa herriko jubilatuentzat. Arratsaldean, 17:00etan, briska txapelketa ekingo diote, eta 19:00etatik 20:00etara pintxo potea egongo da, DJ Bullek girotuta. 20:00etan, txopo txikia eta handia jasoko dituzte, eta, jarraian, San Joan sua isiotuko dute. Musika kontzertuekin emango diote amaiera egunari. 22:30ean, Fito Skins eta Nevadah taldeek joko dute. Goizaldea DJ Bullek girotuko du bere musikagaz.

Ekainaren 24rako, San Joan egunerako, egun osoko egitaraua antolatu dute. Mezagaz hasiko dute eguna, eta Atxondoko Andasto dantza taldekoek dantza saioa egingo dute meza ostean. Jarraian, igel txapelketa eta bakailao eta tortilla txapelketak egongo dira. Arratsaldean mus txapelketa egongo da eta 19:00etan Eingo taldearen ekitaldia hasiko da. Iluntzean Alarma Morea taldearen kontzertua egongo da eta DJ bategaz eta karaokeagaz amaituko dute eguna.

## Txopoa jaso, San Joan sua isiotu eta musika kontzertuekin hasiko dira Axpeko jaiak

Egitarau zabala dute jaiak ospatzeko: kontzertuak, lehiaketa gastronomikoak eta artisautza azoka, besteak beste



Aurreko urte bateko argazkia. **VICTOR URIARTE**

Jai batzordetik andaluziar jantzi joateko deia egin dute.

Axpeko jaiak ekainaren 25ean amaituko dira. Goizean artisau azoka egongo da, eta

eguerdian pilota partiduak eta mus txapelketa. 17:00etan Kalkan taldearen jolasak umeentzat. Jaiak txokolatadagaz amaituko dituzte.

## 'Reels' lehiaketa, bisita gidatuak eta gida birtuala turismoa bultzatzeko Elorrion

Lehiaketa uztailaren 1etik abuztuaren 31ra izango da



Josune Aranguren eta Alazne Mendizabal.

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak herrian eta herriarren inpaktu positiboa izango duen turismoa sustatu gura du, eta, horretarako, turismo jasangarriaren aldeko apustua egingo du. "Familia guztiarentzako moduko turismoa oinarri hartuta, behar

guztietara egokitzeko eskaintza prestatu dugu turismo bulegoagaz batera", azaldu zuen Alazne Mendizabal zinegotziak.

Hori horrela, eta nobedade lez, Instagrameko 'reels' lehiaketa antolatu dute. Lehiaketaren asmoa herria, ondarea eta historia

sustatzea da, 45 segundoko bideo laburrak sortuta. Bideoan, herriko naturguneak, kultur ekitaldiak eta herriko txokoak agertu behar dira. Lehiaketa uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean egongo da martxan, eta irailaren 16an izango da sari banaketa. Guztira, hiru sari banatuko dituzte: EMEko hiru bonu (300 eurokoa, 150 eurokoa eta 50ekoa).

Bestalde, eskaintza tradizionalari ere eutsiko dio Elorriok. Josune Aranguren Elorrioko Udaleko teknikariak azaldu duenez, uztailan eta abuztuan bisita gidatuak egingo dituzte bertako ondarea ezagutzeko. Elorrion hainbat bisita gidatu dute: basilikaren barrenak, Argiñetako altxorak, kaleetako berezitasunak eta gurutzeen bidea, besteak beste. Guztira, hamalau bisita izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz, eta 3 euroko prezioa izango dute. Bertan parte hartzeko, aldeztu aurretik izena eman behar da.

Horrez gainera, Elorrioko Udaleko kideek martxoan kaleratu zuten turismo gida birtuala erabiltzeko gonbidapena egin diete herritarrei eta Elorriora datozenei. "Denak gonbidatuta zaudete, bai parte hartzera baita Elorrio bisitatzera ere", amaitu zuen Mendizabalak.



Astelehenean egindako elkarretaratze argazkia.

## Azken heriotzak salatu eta migrazio politikak aldatzeko eskatu dute

Ekainaren 14an, Greziako kostaldean ehunka migratzaile zeramatzan ontzi bat hondoratu zen

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehenean elkarretaratzea egin zuten Atxondon, 'Nahikoa da! Ez heriotza bat gehiago, ez bizitza bat gutxiago' lelopean. Itsasoa beste behin ere hilobi bihurtu dela salatu zuten elkarretaratzean, eta migrazio politikak errotik aldatu behar direla gogoratu. "Herritarrek dira krisi honi aurre egiteko

boluntario lanak egiten dabiltzanak. Gure herrian ikustea besterik ez dago Atxondo Harrera Herriak egiten duen lana. Elkartasunez beteriko erantzunean sinesten dugu, krisi humanitario honi aurre egiteko erantzun eraginkor, solidario, afektibo eta humanoak ematea ezinbestekoa da eta", azaldu dute.

## San Joan su bateratua isiotuko dute aurten Abadiñon, Astolan

Herriko elkarteek antolatu dute, udalaren babesagaz

**ABADIÑO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten modu berezi batean ospatuko dute San Joan bezpera Abadiñon: herriko auzo guztiak elkartu eta Astolan egitarau bateratua eginda. "Hainbat elkarteek elkarlanean antolatu dugu, udalaren laguntzagaz. Beraz, herritarrei egitarauagaz bat egin eta Astolara etortzeko deia egiten diegu", azaldu du Ne-

rea Zarandona Katalamixoneko kideak.

Egitarauari 18:30ean emango diote hasiera, txokolatada batez. Horren ondoren, umeentzako jolasak egongo dira, eta 21:00etan hamburgesak eta oilasak banatuko dituzte. 22:00etan isiotuko dute sua, eta ikuskizun berezi bat egongo da. 22:30ean DJ Kuku musika ipintzen hasiko da.



Astolan egingo dute sua.

# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.

**keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoctometriazentroa.com](http://www.keinuoctometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**pröktós.clinic**

**Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktoklinika.eus](mailto:info@proktoklinika.eus)

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D  
DURANGO**

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •  
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •  
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Podologia**  
PSE: 214/06



**Adinara  
Urreta  
Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIARIK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka  
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Saio pertsonalizatuak dira,  
talde txikietan.

Tranbarren 13, 4. blokea  
beheka eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13



**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## EKAINEN ZOKKETAK



**Uxarte sagardotegian** bi pertsonentzako jatordua.



**Mendexa Abentura Park-erako** hiru sarrera bikoitz.

\*Zokketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

**Alcampoko otzara:** Txaro Otzerinjaregi  
**Gosaria Xiberun:** Oihane Sanchez  
**BBK Karpin Fauna:** Pili Alberdi eta Koldo Zarate

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaituz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zokketetan!



## Eskolako jaia egingo dute Zaldibarren, Guraso elkarteak eta LH6ko gurasoek antolatuta

Zapatuan egingo dute jaia eta, urtero legez, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak agurtzeko baliatuko dute

### ZALDIBAR • A. M.

Zapatuan ikasturte amaierako urteroko jaia egingo dute Zaldibarko eskolan; guraso elkarteak eta LH6. mailako gurasoek elkarlanean antolatu dute, izan ere, seigarren mailako ikasleek herriko ikastetxean egin duten azken ikasturtea izan da hau. Goizetik hasita, egun osoko egitaraua prestatu dute; goi-

**Egun osoko egitaraua prestatu dute; 13:45ean agur ekitaldia egingo diete LH6. mailako ikasleei**

zean puzgarriak egongo dira, eta 13:45ean agur ekitaldia egingo diete ikasleei. Horren ondoren,

bazkari herrikoia egingo dute patioan bertan.

Arratsaldean, bingoa eta disko festa izango dira protagonistak. Iaz ez bezala, eguraldi ona espero denez ur jolasak ere egingo dituzte. Horrez gainera, egun osoan zehar euskal eskola publikoaren aldeko aldarria egingo dute bertaratuek, baita jolastoki berriaren aldeko eskaera ere. Gaur egun, 300 bat ikasle ditu Zaldibarko eskolak.



Zaldibarko eskolako patioa.

## Egitarau oparoagaz ospatuko dute Berrizko San Joan gaua

Ekitaldirik gehientsuenak Berrizburun egingo dituzte, 19:30etik aurrera



### BERRIZ • A. M.

Euskal Herriko hainbat lekutan lez, San Joan gaua ospatuko dute Berrizen. Gualdiari dantzagaz emango diote hasiera, izan ere, Yllana konpainia ezagunak *Glubs* ikuskizuna aurkeztuko du Berrizburun; 30 urteko ibilbidean konpainiak ekoiztu duen lehengo kale ikuskizuna da hau, eta Nacho Vilarregaz elkarlanean sortu du. Eurria eginez gero, eskolako patioan egingo dute. Horren ondoren, Gure Izarrak tabernan ogitartekoak eta edariak eskainiko dituzte. 21:00etan M&A swing makina ipiniko dute martxan. Jarraian, sua isiotuko dute Berrizburun bertan, 22:30 inguruan. Gaur borobiltzeko, J. Nandez eta Charles Ramírez DJek musika ipiniko dute Berrizburuko giroa berotzeko.

San Joan sua Berrizen.



## Yogurinha Borova, 'karaoke mamarratxoa' eta kale baten inaugurazioa, ekainaren 28ko aldarrietan

Durungaldeko LGTB komunitateko kideek hainbat ekitaldi antolatu dute Harrotasunaren Egunagaz bat egiteko. Komunitateko kideek egitarau bateratu bat osatu dute aurten



Iaz LGTB Harrotasunaren alde Abadiñoako kaleetan egindako mobilizazioa.

### DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA


Ekainaren 28ko aldarrikapenekin bat eginda, Durungaldeko eragileek hainbat ekitaldi antolatu dute LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna kaleratzeko. Abadiñon, adibidez, Harrotasunaren Martxa egingo dute domeka honetan. Muntzaratzeko dorretxetik hasi (10:30) eta Traña-Matienaraino, herriko elkarteek ibilian egingo dute martxa, elkarte batek besteari lekuko bat pasatuta. Ibilaldiaren amaieran, De Norte a Sur taldeak dantza ikuskizun bat egingo du.

Aldarrikapenek ekainaren 28an izango dute segida, Abadiñoako herritarrek kalera irtengo dute-eta manifestazioan LGTB komunitateari ikusgarritasuna emateko. Manifestazioa 19:00etan hasiko da, Laboral Kutxatik. Amaieran, Sokolé taldearen emanaldia izango dute Pino plazan, eta pintxo-potea Isiotun. Eguenean, hilaren 29an, Yogurinha Borova egongo da, 19:00etan, Txanporta plazan.

Atxondon ere kalera irtengo dute LGTB komunitatea ikusaraztera. Ekainaren 27an, Arrazolako pla-

zan, kale kantoi bat inauguratuko dute honako mezu honeguz: *Lavandera bollera, izan zaitzez buztenikera*. Berrizen ere kalera aterako dituzte ostadar banderari loturiko aldarriak. Ekainaren 28an, gauerdian, herriko jaiak direla aprobetxatuta, 'karaoke mamarratxoa' egingo dute txosnagunean. Horretarako, drag-queen eta drag-king tailerrak egingo dituzte lehenengo. Durangon, irakurraldi feminista egingo dute. Urtero legez, Intxaurre aurrean izango da. Ekitaldi hau uztailaren 6an izango da, 19:00etan.

## ANBOTOren udako argazki lehiaketa, martxan



Tabira sortzen. GORKA LARRINAGA

### DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bederatzigarren urtez, ANBOTO bere irakurleen argazkilari senari bidea eman eta udako argazki lehiaketa martxan ipini du. Aurten ere arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean ipini beharko dituzte argazkiak, irailaren 15a baino lehenago.

Lau irabazle egongo dira. Epaimahaiak irabazle bi aukeratuko ditu, eta publikoak beste bi. Publikoaren saria webgunean egindako bozketa bidez erabakiko da, irailaren 16tik irailaren 22ra.

### Sari interesgarriak

Sariak honako hauek izango dira: Smartbox bat eta Databostek emandako bluetooth aurikularrak (epaimahaiaren saria) eta egonaldi bat Garaiko landetxean eta Errigoraren otzara bat (publikoaren saria).



Ziurtagirien banaketa astelehen goizean egin zuten.

## Durungaldeko 23 enpresak berrikuntzaren Hazinnova ziurtagiria jaso dute

Ziurtagiria jaso dutenek berrikuntza ez-teknologikoko mikro proiektuak ezarri dituzte euren erakundeetan

### DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durungaldeko 23 enpresak berrikuntzaren Hazinnova ziurtagiria jaso dute, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren, SPRIren eta Innobasque-Berrikuntzaren euskal agentziaren eskutik. Ekitaldia Ermuko Izarra Centerren egin zuten, astelehenean. Enpresetan berrikuntza teknologikoari loturiko proiektuak ezarri dituztela-eta jaso dute ziurtagiria. Hauek dira jaso dutenak: Acabados Aeronáuticos

de Bizkaia, Airtalde, Amilibia y De la Iglesia, Hirukobat, Azaros 21, Bilbu, Blum Novotest Iberica, Harakai, G. Arizaga, Itte, Innocut, Jeremias, Katiak, Larrako haragiak, Manufacturas GES, Indarpak, Muelles Zaldúa, Pack Pal Mintegi, Polypal Storage Systems, Soldadura Lagunar, Sorland, Asca eta Unamunzaga tailerrek. Durungaldeko enpresez gainera, Busturialdeko, Lea-Artibaiko eta Debarreneko (Gipuzkoa) enpresak ere saritu zituzten.

KIDS&US



INGELES IRAKASLEA / DURANGO

Kids&Us Durangok ingeles irakaslea behar du haur talde bixkiei eskolak emateko.

Ezinbesteko baldintza: ingelesa C1

Bidali zure CVa

[administracion.durango@kidsandus.es](mailto:administracion.durango@kidsandus.es) helbidera

Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Pl. 8, ebakabea · 48200 Durango  
946 570 113/609 533 343 · [durango@kidsandus.es](mailto:durango@kidsandus.es)  
Natural English Learning Durango, SL · B02664571

## Durangaldeko udalbatzak osatuta, aro politiko berri bat hasi da

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**  
Joan zen zapatuan sorpresa gutxi gertatu zen Durangaldeko udaletako kargu hartzeetan. Durangok jakin-min handia piztu zuen arren, itxaroten zena gertatu zen. Mireia Elkoroiribe izendatu zuten alkate, PSE-EEren eta PPren botoei eskerrak. Abadiñoren kasuan, bariku arratsaldean ezagutarazi zuten Mikel Urrutiak (EH Bildu) Jose Luis Navarrogaz (AIB) sinaturiko akor-

dia. Berrizen eta Zornotzan, EAJk PSE-EEren babesagaz eutsi dio alkatezari. Zaldibarren eta Atxondon, ostera, indar aldaketa gertatu da, agintea EAJtik EH Bildura pasatuta. Gainerako herrietan, aldaketa politikorik gertatu ez den arren, alkatezak estreinatzen dituzten politikariak sartu dira udalgintzan kasu batzuetan. Hona hemen eskualdeko alkateen zerrenda.



**MIKEL URRUTIA GALAN**

**Abadiño, EH Bildu**

Mikel Urrutiak legegintzaldi bi egin ditu EH Bilduko zinegotzi legez oposizioan. Berea izan zen orain lau urte ere zerrendarik bozkatuena, baina EAJk lortu zuen agintea, independentekin batuta. Oraingoan, Urrutia Jose Luis Navarrogaz batu da eta alkatez eskuratu du.



**ENERITZ AGIRRE ARMENDIA**

**Atxondo, EH Bildu**

Udal politikagintzan lehenengo zerrrendaburu aurkeztuta alkatez lortu du Eneritz Agirre atxondarrak. Horrela, EH Bilduk agintea berreskuratu du Atxondon, lau urtez Xabier Azkarate (EAJ) alkate egon eta gero. Koalizio subiranistak gehien-goagaz gobernatuko du udalean.



**ORLAN ISOIRD REFOYO**

**Berriz, EAJ**

Orlan Isoird jeltzalearen hirugarren legegintzaldia izango da hau Berrizko alkate legez. Maiatzaren 28ko hauteskundeetan EH Bildu hurbildu egin zaio emaitzetan eta 3 botoratu geratu dira. Hala ere, PSE-EEren babesari eskerrak alkatezari eutsi dio hurrengo lau urteetarako.



**MIREIA ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA**

**Durango, EAJ**

Lau urte oposizioan egon eta gero, Mireia Elkoroiribek alkatez eskuratu du. Aurreko legegintzaldian Mankomunitateko presidentea izan zen, eta orain Durangoko alkate da. Horrela, EAJk Durangoko udal gobernu berreskuratu du, PSE-EEren eta PPren botoei eskerrak.



**JULENE LAZKANO ZENITAGOIA**

**Elorrio, EH Bildu**

Aurreko legegintzaldian kultur zinegotzi aritu eta gero, oraingoan alkatez eskuratu du Julene Lazkanok. Berdinketa gertatu zen EAJgaz, baina Podemos abstenitu egin zenez eta kasu horretan zerrendarik bozkatuenak irabazten duenez, Lazkano da alkate.



**ERRAMUN OSA IBARLOZA**

**Garai, EAJ**

Erramun Osa bigarren aurkeztu da hauteskundeetara alkategai, eta bigarren aurkeztu du alkatez. Herriko Taldeak zerrenda eraberritua aurkeztu arren, Osaren zerrendak irabazi du legegintzaldi honetan ere, eta, gainera, gehien-goagaz gobernatzen jarraituko du.



**IÑAKI TOTORIKAGUENA SARRIONANDIA**

**Iurreta, EAJ**

Durangaldeko alkaterik berteranoena da Iñaki Totorikaguena. Bere bosgarren agintaldiari ekingo dio Iurretako alkate legez, gehien-goagaz gobernatzen gainera. Aurretik, beste legegintzaldi bitan zinegotzi aritu zen; beraz, hogeita lau urte daramatza Iurretako udalean lanean.



**OIHANE IRASTORZA ALZOLA**

**Izurtza, EH Bildu**

Alkatez estreinatzen duen politikari berrietariko bat da Oihane Irastorza izurtzarra. Lorea Muñoz alderdikideak lekukoa emanda hasi du bere ibilbide politikoa alkate legez bere alderdia agintean mantenduz. Legegintzaldi honetan, EH Bilduk lau zinegotzi izango ditu, eta EAJk bat.



**IGOR AGIRRE BARRIENTOS**

**Mallabia, EAJ**

Igor Agirrek alkatezari eutsi dio maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoren Mallabian. Agirre mallabitarra 2015etik da bere herriko alkate. EAJk bost zinegotzi lortu ditu legegintzaldi honetan. EH Bilduk lau zinegotzi lortu ditu azken udal hauteskundeetan.



**AINARA OTXOTORENA IRIARTE**

**Mañaria, EH Bildu**

Ainara Otxotorenak bere bigarren legegintzaldiari ekingo dio Mañariko alkate legez. EH Bilduk lau zinegotzi eskuratu ditu azken udal hauteskundeetan, 193 boto jasota. EAJk hiru zinegotzigaz lan egingo du oposizioan. Jeltzaleek 130 boto eskuratu zituzten maiatzaren 28an.



**EGOITZ GARMENDIA VERA**

**Otxandio, EH Bildu**

EH Bilduko Egoitz Garmendiak alkatez errepikatu du legegintzaldi honetan. Azken lau urtean bere herriko alkate izan den otxandiarrek karguan jarraituko du beste lau urtez. Emaitzak nabarmen izan ditu bere alde, gainera. EH Bilduk sei zinegotzi eskuratu ditu, eta EAJk hiru.



**ENERITZ AZPITARTE ARANZABAL**

**Zaldibar, EH Bildu**

Eneritz Azpitartek alkatez berreskuratu du agintaldi honetan. Orain legegintzaldi bi alkate izan eta gero, koalizio subiranistako zerrrendaburu oposizioan egon da azken lau urteetan. Gehien-goagaz gobernatuko du, gainera. Azpitarteren EH Bilduk sei zinegotzi ditu, EAJk lau eta PSE-EEK bat.



**AINHOA SALTERAIN GANDARIAS**

**Zornotza, EAJ**

Ainhoa Salterainek zinegotzi izateko alkate izateko jautzia eman du maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoren. Andoni Agirrebeitia alderdikideak aginte makila emanda, Zornotzako alkate izango da datozen lau urteetan. PSE-EEren babesari eskerrak eskuratu du Zornotzako alkatez.



Mireia Elkoroiribe jeltzalea aginte makila eskuetan.

## Mireia Elkoroiribe jeltzalea da Durangoko alkate berria, PSE-EEren eta PPren babesari eskerrak

EAJk alkatetza berreskuratu du azken legegintzaldian oposizioan egon eta gero

**DURANGO • EKAITZ EHRRERA**

Durangoko kargua hartzeko ekitaldiak ikusmina eragin zuen joan zen zapatuan udaletxe barruan eta baita kanpoan ere. Hedabide asko batu zen goizean udalbatza aretoan. Alkatea aukeratzeko bozketan ez zen sorpresarik izan. EAJk egun bi lehenago iragarri zuen PSE-EEgaz akordioa lotuta zeukala, eta PPko Carlos Garciak hauteskunde kanpainen sarritan errepikatu zuen EH Bildu gobernutik ateratzea zuela helburu. Beraz, aurreikuspenak beteta, EAJko Mireia Elkoroiribe da Durangoko

alkate berria, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin. Elkoroiribek "ohore handiagaz" hartu zuen kargua berria. Udal eraketa berria egin bitartean, "adostasunaren bidetik" lan egitera deitu zuen.

Ima Garrastatxuk (EH Bildu) bere hautagaitza aurkeztu zuen. Aurreko legegintzaldian landuriko bide berean sakontzeko nahia agertu zuen bozketa egin aurreko hitz hartzean. "Periferiako auzoetara" zuzenduriko proiektuak eta PERI Trenbidearen ordezkio proiektua garatzea izan zituen hizpide.

Alderdi Popularreko Carlos Garciak Durangoko "desgobernua" aldatuko zuela iragarri zuen bozketa hasi aurretik. Bera babestu duten durangarren alde egingo zuela ere nabarmendu zuen. Elkoroiriberi buruz adierazi zuen "persona ona" dela, eta bere alde egingo duela.

Herriaren Eskubideak azaldu zuenez, EAJk, PSEk eta PPk Durango "hondatuta" ez uzteko lan egingo dute. "Lanean jarraituko dugu Durangoko interesak defendatzeko, Madrildik, Gasteiztik edo Bilbotik heldutako interes alderdikoen aurrean", adierazi zuten.

## Ainhoa Salterain alkate PSE-EEren babesari eskerrak

Andoni Agirrebeitiak alderdikideari pasatu zion aginte makila



Aurreko alkate Andoni Agirrebeitiak Ainhoa Salteraini aginte makila eman osteko irudia.

**ZORNOTZA • JONE GUENETXEA**

Ainhoa Salterainek (EAJ) alkate kargua hartu du Zornotzan, PSE-EEren botoari eskerrak. Andoni Agirrebeitia alderdikideak eman zion aginte makila Salteraini. Salterainek azaldu zuenez, "zintzotasunez eta partaidetzagaz lan egiteko konpromisoa" hartu du. Pertsonak helburu dituen jarduna ipiniko dutela martxan azaldu zuen Salterainek kargua harturikoan.

Ander Uriarte EH Bilduko zinegotziak ere esan zituen berba batzuk: "Oposizio arduratsua izango da, herriaren ordezkariak garelako. Oposizio fiskalizatzailea ere izango gara, herritarrak eta herritarren baliabideak zaindu

behar ditugulako. Bestalde, oposizio eraikitzailea ere izango gara, hartzen dugun baino herri hobeaz utzi gura dugulako".

Alicia Hernández sozialistak adierazi zuenez, Zornotzako sozialistek beti lan egin dute herritarren bizitza hobetzeko. "Erdigunean pertsonak ditugu. Gizarte justuago, inklusiboago eta kohezionatuago bat eraiki gura dugu", esan zuen.

Alba Gutiérrez Elkarrekin Podemoseko kideak hauxe esan zuen: "Gure herrian jende askok benetako zailtasunak ditu egunerokotasunari aurre egiteko. Korporazio honek familia horietara heltzea izan behar du helburu nagusi".

## Erramun Osak bigarren legegintzaldiari ekingo dio Garaiko alkate karguan

**GARAI • AITZIBER BASAURI**

Alkate kargua hartu ondoren, Erramun Osak nabarmendu zuen "garaitarren eta Garairen interesak" non-nahi defendatuko dituela. Osaren berbetan, "bidea elkarregaz egitea" eskatu diete herritarrek zinegotzietan.

Herriko Taldeko alkategai Jon Martin Larruskainek herritarrengandik jaso duten babesa eskertu zuen, eta EAJ zoriondu zuen lorturiko emaitzengaitik. "Gobernatze-ko babesa eman ez arren, bizitzeko Garai bat eraikitzeke lanean arituko gara", esan zuen.




Garaiko udalbatza berria.

## Igor Agirrek bere hirugarren legegintzaldia egingo du Mallabiko alkate lanetan

**MALLABIA • J.D.**

Igor Agirre Mallabiko alkate izendatu dute berriro, eta hirugarren legegintzaldia hasi du alkate lanetan. Kargua hartzeko ekitaldian, Agirrek eskerrak eman zizkien kargua utzi duten zinegotzietan, eta ongietorria eman zien udalbatza berria osatzen dutenei. Datozen lau urteetarako "elkarlanerako" deia egin zuen: "Mallabiaren alde lan egiteko gaude hemen. Desberdinak izan arren, mallabitarren beharrek batzen gaituzte".



Igor Agirre Mallabiko udalbatzaren erdian, aginte makila eskuetan.

# EH Bilduko Mikel Urrutia gobernura heldu da Abadiñoko Independente Berriak taldeagaz sinaturiko akordioari eskerrak

Jose Luis Navaroren alderdi berriaren babesagaz, koalizio subiranista udal gobernura heldu da Abadiñon, historian lehenengoz

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan ostean galdera bolo-bolo zebilen abadiñarren ahotan: "Zer gertatuko da udalean? Zer aliantza egongo dira?". Bateko zein besteko talde politikoeak euren artean egindako bilera eta negoziazioen ondoren, zapatuan zalantza guztiak argitu ziren. EH Bilduk jakinarazi zuen Abadiñoko Independente Berriak taldeagaz gobernu akordioa sinatu zuela. Zapatu eguerdian egindako bilkuran akordio hori berretsi zuten, eta independenteek talde subiranistako alkategaiari eman zioten botoa.

Lehenengo aldia da EH Bildu Abadiñoko alkatetzara heltzen dena. Mikel Urrutia hautagaia 2015eko eta 2019ko hauteskunde-



Mikel Urrutia aginte makilagaz.

deetan ere ahalegin du zen agintea lortzen, baina ahalegin horrek joan zen zapatuan ikusi zuen argia, hiru saiakeraren

ondoren. EH Bilduk eta Abadiñoko Independente Berriak taldeak sinaturiko gobernu akordioak alkatetza ahalbidetu zion

Urrutiari. "Eskerririk asko denoi, hau ez dugu inoiz ere ahaztuko. Gobernantza eredu bati ekiteko momentua heldu da. Guretzat

ohore bat da konpromiso hori hartzea. Alkate izendatu nauzue eta Abadiñoko herritar guztiengatzat lan egingo dugu. Eskerririk asko baita Edurneri eta Jose Luisi ere", azaldu zuen Mikel Urrutiak independenteen zinegotzi biak aipatuta.

EAJko lau zinegotziek Mikel Garaizabali eman zioten botoa, eta PSE-EEko Javier Crespok bere buruari. Garaizabalek aipatu zuen "ohore bat" izan dela Abadiñoko alkate izatea: "Ohore bat izan da gure herriko alkatea izatea. Jakizue ehuneko ehuna eman dugula. Bestalde, zinegotzi guztiok zorterik onena opa dizuet, eta baita zuri ere, Mikel. Zorterik onena opa dizut ibilbide berri honetan", amaitu zuen Garaizabalek.

## EH Bilduko Julene Lazkano da Elorrioko alkate Podemosen abstentzioari eskerrak

EH Bilduk eta EAJk seina boto jaso zituzten, baina Podemos abstenitu egin zenez, Lazkanok irabazi zuen



Julene Lazkano eta Idoia Buruaga.

## ELORRIO • M.Z.

Julene Lazkanok Idoia Buruagaren lekukoa hartu du Elorrioko udal gobernuan. Lazkanok sei boto jaso zituen joan zen zapatuko udalbatza berriaren eraketan. EAJko Mikel Arruabarrenak beste sei boto jaso zituen. Podemos-Ezker Anitza-IU-Aliantza Berdea koalizioiko Joseba Andoni Fernández abstenitu egin zen botazioan, eta, beraz, seinako berdinketa gertatu zen. Baina hauteskundeetan EH Bildu izan denez zerrendarik bozkatuena, Julene Lazkanok hartu zuen alkate kargua. "Elorrio maite dugulako gaude gaur hemen, eta arduraz, konpromisoz, ilusioz

eta indarrez lan egingo dugu hurrengo lau urteetan", esan zuen. Oposizio alderdiei "ardura" eta "jarrera eraikitzailea" eskatu zizkien. Mikel Arruabarrenak (EAJ) alkate berria zoriondu zuen: "Zorterik onena opa dizut hurrengo lau urteetan, hori Elorriorentzat ona izango delako". Oposizioa "erantzukizunez" eta "zorrotzotasunez" egingo dutela aurreratu zuen. Joseba Andoni Fernandezek (Podemos) oposizio "eraikitzailea" egingo duela adierazi zuen eta legegintzaldiko erronka nagusiak zerrendatu zituen. Azkenik, zinegotzi izandakoak gogoratu zituen, "euren dedikazioagaitik".

## Oihane Irastorza da Izurtzako alkate berria

Hiru legegintzalditan alkate izan den Lorea Muñoz alderdikidearen eskutik jaso zuen aginte makila



Oihane Irastorza Lorea Muñozen lekukoa hartzen.

## IZURTZA • AITZIBER BASAURI

EH Bilduko Oihane Irastorzak Lorea Muñozen eskutik jaso zuen aginte makila. Irastorzak nabarmendu zuen "zintzotasunez" eta "apaltasunez" gobernatuko duela, "herritik eta herriarentzat". EAJko Juan Jose Garatek uko egin zion karguari. Izurtzak orain 250 biztanletik behera dituenez, zerrendak barik izenak bozkatu zituzten hauteskundeetan. EAJren aldetik Garate izan zen bozkatuena. Baina bere karguari uko egitera, EAJren zerrendan botorik gehien jaso zuen bigarrenak hartuko du bere tokia, Aroa González Uriartek.

## Egoitz Garmendiak bigarren agintaldiari ekin dio, Otxandion, aginte makila hartuta

EH Bilduk bost ordezkari ditu udalean, eta EAJk lau



Otxandioko udalbatza eta erdian Egoitz Garmendia.

## OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Egoitz Garmendiak bigarren legegintzaldia beteko du Otxandioko alkate bezala. "Osatu dugun lantalde berrituak indarra eta ilusioa ematen dizkigu lanean oraindino gogo gehiagoz jarraitzeko. Eskerririk asko bihotzez hau posible egin duzuen denoi", esan zuen joan zen zapatuko udalbatzaren ondoren. EH Bilduko bost ordezkari eta EAJko lau zinegotzik osatuko dute udalbatza legegintzaldi honetan.

## EH Bildu gobernura bueltatu da Atxondon Eneritz Agirregaz



Eneritz Agirre joan zen zapatuko udalbatzan.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Lau urteren ondoren, EH Bilduk alkatetza berreskuratu du Atxondon. Eneritz Agirrerri Xabier Azkaratek (EAJ) eman dio aginte makila. "Eskerrik asko taldeari eta eskerrik asko herriari, eman diguzuen babesagaitik", azpimarratu zuen Agirrek. Era berean, aurreko legegintzaldian oposizioan jardun zuten zinegotziak gogoratu zituen. "Zuen gobernantza eredu jarraituko dugu, parte hartzailea. Preso eta iheslariak ere gogoratu zituen. Bestalde, AH-

Taren proiektua ere gogoan izan zuen: "Badakigu AHTa gelditzea berba potoloa dena, baina kalterik gutxien egin dezan ahaleginduko gara", adierazi zuen Eneritz Agirre alkateak.

Pedro León EAJko zerrendaburuak eskua luzatu zion gobernu taldeari. "Behar duzuenarako hemen izango gaituzue", azaldu zuen joan zen zapatuko udalbatzan.

Honela geratu da Atxondoko Udala: EH Bilduk sei zinegotzi izango ditu eta EAJk hiru.

## EH Bilduko Eneritz Azpitartek alkatetza berreskuratu du Zaldibarren

Orain legegintzaldi bi Azpitarte izan zen alkate, 2019an Jose Luis Maiztegi gobernura heldu arte



Eneritz Azpitarte aginte makila jasota.

### ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Orain dela lau urte, Eneritz Azpitartek Jose Luis Maiztegi eman zion Zaldibarko udaleko aginte makila. Joan zen zapatuan, ostera, makila horrek kontrako bidea egin zuen, EH Bilduk alkatetza berreskuratu zuen eta. EH Bilduk sei zinegotzi lortu ditu, EAJk lau eta PSE-EEK bat. Beraz, Azpitartek gehiengoagaz gobernatuko du datozen lau urteetan.

Azpitartek Zaldibarko auzoak izan zituen berbagai. Eitzagakoak batez ere, 2020ko otsailan hango zabortegean izandako lur-jausia gogoan hartuta.

Herriko plazara jaitsitakoan, herritar talde batek txaloka hartu zituen Azpitarte eta koalizio subiranistako zinegotziak.

## Iñaki Totorikaguenak bere bosgarren legegintzaldia hasiko du Iurretako alkate legez

Aurretik, beste legegintzaldi bitan zinegotzi aritu zen



Iñaki Totorikaguena kargua hartzen.

### IURRETA • JONE GUENETXEA

Iñaki Totorikaguenak hauxe esan zuen alkate kargua hartzerakoan: "Alkate naizen aldetik, denen alde lanean jarraituko dut, konpromiso gehiagogaz eta gehien behar dutenentzat". Bestalde, aurreko legegintzaldian udalean jardun duten zinegotziak gogoratu zituen, bereziki PSE-EEkoa. 32 urtez zinegotzi izan den Mari Carmen Muñoz sozialis-

tak publikotik entzun zituen alkatearen berbak.

Ziortza Duñabeitia EH Bilduko zinegotziak ere berba egin zuen: "Lau urte hauetarako lanerako gogoz gatoz eta elkarlan baterako prest gaude herriaren onurarako denean". PSE-EEko Julen Callejak azaldu zuenez, bere ekarpena egin gura du udal politikagintzan, "hauxe delako herritarren bizitza kalitatea hobetzen laguntzen duena".

## Ainara Otxotorena izango da Mañariko alkatea beste lau urtez

### MAÑARIA • J.D.

"Mañaria ondo doa, hauteskudeetan herritarron babes jaso genuen eta hemen beste legegintzaldi berri bateko ibilbide polita hasiko da. Udalean lanean egongo den taldea berritzu dugu, indarberritu egin gara, eta kalean inoiz baino babes handiagoa eta ilusio handiagoa sentitu ditugu", adierazi zuen Ainara Otxotorena Mañariko alkateak joan zen zapatuko kargu hartzearen ondoren. Otxotorenen bigarren legegintzaldia izango da Mañariko alkate karguan.



Mañariko Udaleko udalbatza berria.

## Orland Isoird Berrizko alkateak laugarren legegintzaldiari ekingo dio

### BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Isoird Berrizko alkateak "dedikazioz eta ilusioz" ekin dio laugarren legegintzaldiari. Joan zen zapatuko kargu hartzean eskerrak eman zizkien berriztarrei, udaleko langilei eta baita azken legegintzaldian lanean aritu diren zinegotziei ere.

Josu Albizuri EH Bilduko zinegotziak azaldu zuenez, emaitza historikoak izan dira ezker independentismoarentzat. "Herritarren mezua argia da; lana saritu dute, guk ez dugulako kerik saltzen", gaineratu zuen.



Orland Isoird kargua hartzeko ekitaldian.

# Abadiñoko Sorland Komunikazio Agentziak Bai Euskarari Saria jaso du

Sorland Komunikazio agentziak Abadiñon eta Zarautzen ditu bulegoak

**ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO**

Bai Euskarari elkarteak hiru sari banatzen ditu urtero. Eta, aurten, Sorland Agentziak jaso du Bai Euskarari Sarietariko bat. Donostiako Miramar Jauregian egin zuten sari banaketan, Bai Euskarari Elkarteak euskararen erabilera areagotzeko Sorland Agentziak egindako lana nabarmendu zuen.

Hupi, Errigora eta Sorland izan dira Bai Euskarari Ziuertagiria eskuratu duten entitateak. Bai Euskarari Elkartearen esanetan, enpresa hauek apustu bat egiten dute; haien

lanaren bitartez, haratago joatea erabaki dute, euskaraz lan egin eta eroso bizi ahal izateko. Urterik urte

**Sorland komunikazio agentzia bat da, marka baten eragina hobetzen laguntzen duena**

urratsak egitera engaiatzen dira, euskarari espazio berriak zabaltzeko gogoagaz, eta beharbada ohituraz erdaldunagoak diren

eremuetan euskarari merezi duen tokia ere ematen diote, ausardiaz.

Sorland Agentzia, lehenago Di-da, Bai Euskarari ziuertagiria sortu zenetik bertatik da komunitatearen parte, "lan munduan euskaraz bultzatzeko ere jaio zelako Sorland". Sorland zerbitzu osoko komunikazio agentzia bat da, marka baten eragina handitzen edo hobetzen laguntzen duena. Zerbitzu osoko agentzien artean, lehenengoetarikoak izan ziren zerbitzu osoa euskaraz eskaintzen.



Donostiako Miramar jauregian egindako ekitaldiko irudia.

## Durungaldea asteen

### Etxebarri munduko laugarren jatetxerik onena eta Europako hirugarrena

**ATXONDO** | Bittor Arginzonizen Etxebarri The World's 50 Best Restaurants zerrendako laugarren jatetxerik onena izendatu dute. Iaz seigarren postua lortu zuen Arginzonizek eta aurten postu bi egin ditu gora. Bestalde, lehenengo asteen Europako hirugarren jatetxerik onenaren saria lortu zuen, Opinionated About Dining (OAD) gidak erabakita.



**ELORRIO** | Ferixa Nausikoek badute kartela. Aurtengo jaiak Alfonso Giménez Venturaren kartelak iragarriko ditu. Hiru kartel proposamen aurkeztu

### Alfonso Gimenezen kartelak iragarriko ditu aurtengo Elorrioko Ferixa Nausikoak

dituzte aurtengo lehiaketara. 16 egunez egon dira Iturri Kultur Etxeko sarreran eta Elorrioko Udalaren webgunean, elorriarren botoak jasotzeko. Herriarren iritziaz gainera, epaimahai bat ere egon da irabazlea aukeratzeko. "Irudiekin oso joko polita lortu du eta oso ondo diseinatuta dago", adierazi dute epaimahaiko kideek.



### Haizea Bedialauneta eta Gorka Santos elorriarrek Euspot lehiaketa irabazi dute

**ELORRIO** | Ekainaren 15ean Euspot lehiaketako sari banaketa egin zuten Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxeko Zaraia Aretoan. Ez dira debalde iragarkiaren sortzaile elorriarrek mila euroko saria eskuratu zuten. Goienako lankideei elorriarrek aitortu zieten sorpresaz hartu zutela saria: "Aurtengo maila ikusita, ez genuen espero irabaztea".

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## ESKELAK

946 816 558 • [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)


Anbotokideek deskontua izango dute.



# BURUARI KLIK!













# GURUTZEGRAMA



# SUDOKUA

Kokatu beheko robotak dagokien lauki zurietan.







# MARGOTU

Margotu beheko irudia gurago duzun moduan.



# JARRAITU BIDEARI

Beheko seinaleei jarraituta egin beheko irudian bidea.




# DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



# TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu ibilgailu hauek txikitik handira.



# Okm:

## *batzen gaituen distantzia*

### **Abantailak**

#### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

#### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

#### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran

#### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

#### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

#### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

#### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

#### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

#### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

#### **LA PERLA**


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

#### **NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### **HONTZA MUSEOA**

- %50eko deskontua sarreretan



**> anboto**  
**kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

#### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

#### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

#### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***

## Ekainaren 23an

### ABADIÑO San Joan

**Txokolatea**, 18:30etan, Astolan.  
**Umeen jolasak**, 19:00etan.  
**Euskolabeldun hanburgesak eta oilaskoa**, 21:00etan.  
**Sua piztuko da**, 22:00etan.  
**DJ Kuku** 22:30ean.

### ATXONDO sanjoanak

**Meza nagusia**, 11:30ean, Axpen.  
**Herriko jubilatuentzat luntxa**, 13:00etan.  
**Briska txapelketa**, 17:00etan.  
**Pintxo potea DJ Bullek girotuta**, 19:00etan.  
**Txopo txikia eta handia jasotzea**, 20:00etan. Jarraian, **San Joan suak**.  
**Fito Skins, Nevadah eta DJ Bull**, 22:30ean.

### BERRIZ San Joan

**'Glubs' (Yllana konpainia)**, 19:30ean, Berrizburun.  
**Bokatak eta edariak**, 20:30ean, Gure Izarrak tabernan.  
**M&A Swing Machine**, 21:00etan, Berrizburun.  
**San Joan sua**, 22:30ean, Berrizburun.  
**DJ J. Nandez/Charles Ramirez**, 23:00etan.

### DURANGO San Joan

**Txokolatada**, 19:00etan, San Roke auzoan.  
**'Pepa eta Kutxo: pailazokeriak' (Xilipurdi antzerkia)**, 20:00etan.  
**Auzokuek trikitixa taldea**, 20:30ean.  
**Musika girotua**, 21:00etan.  
**Su artifizialak**, 22:15ean.  
**San Joan sua**, 22:30ean.

### ELORRIO San Joan

**San Joan ermitara igoera**, 16:30ean, plazatik.  
**Pailazo Azkona antzerki taldea eta merienda**, 17:00etan, San Joan ermitan.  
**Disko festa: 'Gor Super D,jei'**, 21:30ean, kiroldegi ondoko aparkalekuan.  
**Sua piztea, suzko zezenak eta suzko erruberak**, 22:15ean.

### GARAI sanjoanak

**Donien Atxa**, 20:30ean, San Joan Momoiotiokoan.  
**Afaria**, 21:30ean. Ondoren, **San Joan sua** isiotuko dute.  
**Laja II.a eta Lutxurdi**.

### IURRETA San Joan

**Jauziak**, 19:00etan.

**Afaria**, 20:00etan, plazan.  
**Ansoregi eta Larrañaga trikitilariak**, 21:30ean.  
**Iluntzean sua piztuko dute**. Ondoren, **erromeria**.  
**DJ Kuku**, 01:00etan.

### IZURTZA San Joan

**Parrillada**, 20:30ean, Santo Tomas parkean. Ondoren, **San Joan sua isiotuko dute**.

### MALLABIA San Joan

**San Joan sua**, 20:00etan, Ansoagako bidegorrian.

### MALLABIA sanjoanak

**Txopoa altxatzea eta txapliguak**, 20:00etan, Goita auzoan. Ondoren, **San Joan sua** isiotuko dute.  
**Bertso afaria: Beñat Ugartetxea eta Sustrai Colina**, 21:30ean. Gai jartzaileak: auzoko gazteak.

### MAÑARIA San Joan

**Umeentzako jolasak**, 17:00etan, plazan.  
**'Kale gorrian' (Barsanti konpainia)**, 19:00etan. Ondoren, **sua isiotuko dute**.

### OTXANDIO San Joan

**San Joan suak ikusteko kalejira**, 22:00etan, plazan.

### ZORNOTZA musika

**Haizetara jaialdia**.  
**Talde aurkezpena**, 19:00etan, Zelaieta parkean.  
**La fanfare Saugrenue**, 19:30ean, Zelaieta parkean.  
**Jazz hunters**, 20:00etan, Andra Mari plazan.  
**Harmony's brass band**, 20:30ean, Sabino Aranan.  
**Dirty Durum Brass Band**, 21:00etan, Ogenbarrenan.  
**Back Chat brass**, 21:00etan, Arraibi plazan.  
**Bulbalkan**, 21:30ean, Euskal Herria plazan.  
**Renniw brass band**, 21:30ean, Gernika plazan.  
**Udazken txistu taldea**, 21:30ean, Ogenbarrenan.  
**Charanga Pisando Fuerte**, 22:30ean, San Joan suan.  
**Jukepop**, 23:00etan, Zelaieta parkean.  
**Gata Brass Band**, gauerdian, Zubiondon.  
**Jou Gonzalez Quartet**, gauerdian, Harrison hotelean.

## Ekainaren 24an

**ATXONDO sanjoanak**  
**San Joan Eguna (etorri**

**andaluz jantzita**.  
**Meza nagusia**, 11:30ean, Axpen.  
**Atxondoko Andasto dantza taldea**, 12:30etan. Ondoren, **igel txapelketa**.  
**Bakailao eta patata tortilla txapelketak**, goizean zehar  
**Mus txapelketa**, 17:00etan.  
**Eingo taldea**, 19:00etan.  
**Alarma Morea**, 22:00etan.  
**DJjak, karaoke eta guzti**, txosnako agertokian.

### DURANGO antzerkia

**'Volatineros' (Nostraxladamos konpainia)**, 20:00etan, Otamotzena parkean (euria bada bertan behera geratuko da).

### DURANGO tailerra

**Suk Aldatu: Tortilla ikastaroa**, 11:00etan, Merkatu plazan (8-12 urte).

### DURANGO musika

**Durangoko II. Moonstomping eguna**, 12:00etan, Tabira auzoan.

### ELORRIO sanjoanak

**Auzokoentzako meza eta luntxa**, 12:00etan, San Joan ermitan.

### GARAI sanjoanak

**Meza**, 11:30ean, San Joan Momoiotiokoan. Ondoren, **hamaiketako**.

### IURRETA musika

**Ibil Bedi+DJ Desi eta Presi**, 22:00etan, Abadetxean.

### MALLABIA sanjoanak

**Loreak batzeko ibilaldia**, 17:00etan, Goita auzoan.  
**Sobrie prestatzea**, 18:00etan.  
**Dantzariak**, 19:00etan.  
**Meza**, 20:00etan. Ondoren, luntxa.  
**Patata tortilla lehiaketako tortilla aurkezpena**, 20:30ean.  
**Aima taldea**, 22:00etan.

### MAÑARIA San Joan

**Meza**, 11:00etan, San Joan ermitan. Ondoren, **herriko dantzariak eta luntxa**.

### ZALDIBAR musika

**Mocker's + The Riff Truckers + Dube**, 20:00etan, Gaztetxean.

### ZORNOTZA musika

**Haizetara jaialdia**  
**Reziclonk**, 11:30ean, Zelaieta parkean.  
**Dirty Durum brass band**, 12:30ean, Andra Mari plazan.

**La fanfare saugrenue**, 12:30ean, eta **Las Kermes del vermú**, 13:00etan, Zezilia Gallartzaigoitian.  
**Jazz hunters**, 13:00ean, Gernika plazan.  
**Renniw Brass band**, 13:00etan, Euskal Herria plazan.  
**Reziclonk**, 18:00etan, Zelaieta parkean.  
**Bulbalkan**, 19:00etan, Zelaieta parkean. Sabino Aranan.  
**Dead Puppet Orchestra**, 19:00etan, Gernika plazan.  
**Harmony's brass band**, 19:30ean, Andra Mari plazan.  
**La Kermes del vermú**, 19:30ean, San Joan kalean.  
**Jukepop**, 20:00etan, Andra Mari plazan.

**Gata brass band**, 20:00etan, San Joan kalean.  
**Charanga Pisando Fuerte**, 20:00etan, Ogenbarrenan.  
**Back Chat brass**, 20:30ean, Arraibi plazan.  
**Bulbalkan**, 20:30, Euskal Herria plazan.  
**Renniw brass band**, 21:30ean, Gernika plazan.

**Udazken txistu taldea**, 21:30ean, Ogenbarrenan.  
**Charanga Pisando Fuerte**, 22:00etan, San Joan suan.  
**Gata brass band**, 22:00etan, Zelaieta parkean.

**Bulbalkan**, 22:00etan, Gernika plazan.

**Dirty Durum Brass Band**, 22:00etan, Zezilia Gallartzaigoitian.  
**Harmony's brass band**, 23:00etan, Zelaieta parkean.  
**Back Chat Brass**, 23:00etan, Zubiondo plazan.  
**Jukepop**, gauerdian, Zubiondo plazan. **Jou Gonzalez Quartet**, Harrison hotelean.

## Ekainaren 25ean

### ABADIÑO martxa

**Harrotasunaren martxa De Norte A Sur taldearen eskutik**, 10:00etan, Muntzaratzeko dorretxearen alboan hasita.

### ATXONDO sanjoanak

**Inguruko artisauen erakusketa**, goizean zehar, Axpe auzoan.  
**Meza nagusia**, 11:30ean.  
**Pilota partiduak**, 12:30ean.  
**Mus txapelketaren amaiera**, 13:00etan.  
**Umeentzako jolasak (Kalakan)**, 17:00etan.  
**Txokolatada**.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Sin malos rollos**  
barikua 23: 18:30 / 21:00  
zapateria 24: 17:00 / 19:15 / 21:30  
domeka 25: 17:00 / 19:30  
astelehena 26: 18:00 / 20:15  
martitzena 27: 18:00 / 20:15  
eguztzena 28: 19:00

• **La puerta mágica**  
barikua 23: 18:30 / 21:00  
zapateria 24: 17:00 / 19:15 / 21:30  
domeka 25: 17:00 / 19:30  
astelehena 26: 18:00 / 20:15  
martitzena 27: 18:00 / 20:15  
eguztzena 28: 19:00

• **La fortaleza**  
barikua 23: 18:30 / 21:00  
zapateria 24: 19:15 / 21:30  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 18:00 / 20:15  
martitzena 27: 18:00 / 20:15  
eguztzena 28: 19:00

• **Águila y jaguar: los guerreros legendarios**  
zapateria 24: 17:00  
domeka 25: 17:00

• **Solo nos queda bailar**  
eguztzena 28: 19:00

### ::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Todo sobre mi padre**  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:15

• **Superheroien familia**  
domeka 25: 17:00 / 20:00





## Koba Live jaialdia

KONTZERTUAK Abadiño :: Ekainak 24

### Angelus Apatrida Koba Live jaialdian

Hogei urteko ibilbidean zaletu ugari batu duen Albaceteko (Espainia) Angelus Apatrida taldeak eta Primal Fear alemaniarrek kontzertua emango dute, bihar, Abadiñon. Talde biak kartelburu dituen Koba Live jaialdia Traña-Matienako eskolatan egingo da, 17:00etan hasita. Mosh, El altar del Holocausto, eta Durangaldeko Backheart eta Sweet Rage taldeek osatuko dute kartela. 2021ean *Angelus*

*Apatrida* diskoa kaleratu zutenetik dozenaka kontzertu eman dituzte; Espainiako, Europako eta AEBetako birak egin dituzte denbora tarte honetan, eta metal jaialdirik garrantzitsuenetarikotan ere aritu dira; besteak beste, Graspop, Hellfest, Resurrection Fest, Dynamo metal fest jaialdientan aritu dira. Primal Fear taldeak Espainiako estatuan joko duen kontzertu bakarra dela iragarri dute antolatzaileek.

#### ATXONDO sanpedroak

**Mendi martxa**, 09:00etan, Apatako plazatik, eta, ondoren, **luntxa** Axpeko jaietan.

#### DURANGO musika

**'Durango kantari'**, 12:00etan, Aramotz auzoan.

#### DURANGO sanpedroak

**Mendi martxa**, 08:30ean, Tabira auzotik.  
**Lasterketa**, 09:30ean.  
**Eixu Artisau azoka**, 11:00etan.

#### GARAI sanjoanak

**Meza**, 10:30ean. Ondoren, **dantzariak eta igel jokoaren tokiko txapelketa**.  
**Oilasko paella txapelketa**, 14:30ean.

#### MALLABIA sanjoanak

**Bola sariak**, 17:00etan.  
**Araitx eta Irunegaz bertso-kantu saioa**.  
Jaiak agurtzeko **kopaua eta txokolatea**. **Igel eta Toka jokoan jarduteko aukera egongo da**.

### Ekainaren 27an

#### ATXONDO inaugurazioa

**'Lavandera bollera izen zaittez buztenikera!'**, kale kantoien inaugurazioa egingo dute, 19:30ean, Arrazolako plazan.

### Ekainaren 28an

#### ABADIÑO mobilizazioa

**'Harrotu lumak!'**, 19:00etan, Trañabarren kaletik.  
**Pintxopotea**, Isiotu elkartean.

#### ABADIÑO musika

**Les Lullies**, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

#### ATXONDO sanpedroak

**Herriko nagusientzat hamaiketako**, 12:30ean.  
**Txopo txikiaren apainketa**, 18:00etan, Gaztetxean.  
**Irubidetik kalejira trikitilariekin, txopoa jartzea, pregoia eta taloak**, 19:00etan.  
Ondoren, **Sala eta Garazi (Bertsioak akustikoan)**.

#### BERRIZ sanpedroak

**Pregoa eta txupinazoa: Berriz Futbol Taldearen 50. urteurrena**, 19:00etan, udaletxean.  
**Kartel lehiaketako sari banaketa eta sardina jana**.  
**Euskal Preso eta Iheslarien eskubideen aldeko kontzentrazioa**, 19:00etan. Udaletxeko plazan. Txosna batzordeak antolatuta.  
**Donien Atxa eta Dantzari Dantza entsegua**, 20:00etan, Elizondo plazan.  
**Kontraxupinazoa, txosnen irekiera eta pikotea**, 20:30ean.  
**Akerbeltz taldea**, 22:30ean, Elizondo plazan.

**Karaoke mamarratxo**.  
**Drag queen eta drag king tailerra**, gauerdian.

### Ekainaren 29an

#### ABADIÑO ikuskizuna

**Yogurinha Borova**, 19:00etan, Txanporta plazan.

#### ATXONDO sanpedroak

**Diana txistulariekin**, 10:00etan.  
**Andasto dantza taldearen erakustaldia**, 18:30ean.  
**Pintxo-potea**, 19:00etan, txosnan.  
**Nesken pala eta bestelako pilota partiduak**, 19:30ean.

#### BERRIZ sanpedroak

**Margo lehiaketa umeentzat**, 11:00etan, udaletxeko lorategian.  
**Margo lehiaketako eta DBHko agenda lehiaketako sari banaketa**, 11:30ean.  
**Meza nagusia**, 12:00etan. Ondoren, **Dantzari Dantza**.  
**Tiragoma txapelketa**, 17:00etan, udaletxeko parkean.  
**Dantzari Dantza**, 20:00etan.  
**Binilo pintxada**. **Pineapple Sweets oi!/punk Gasteiz**, 20:00etan. Txosna batzordeak antolatuta.  
**Puro Relajo**, 22:00etan.  
**Musika jartzailea DJ Marrazo**, 23:00etan. Txosna batzordeak antolatuta.

#### DURANGO sanpedroak

**Txistulariak**, 09:00etan, Tabira auzoan.  
**Meza**, 19:30ean.  
**Txupinazoa+txalaparta**, 20:00etan, Tabira auzoan.  
**Bertso jaialdia: Iruñe Basagoiti, Igor Elortza, Onintza Enbeita eta Igor Galartza**, 20:30ean, Tabira parkean. Gai jartzailea Ander Elorriaga izango da.  
**Zinegoak jaialdiko filmak**, 22:00etan, Tabira parkean.

#### IURRETA musika

**GOZZUA + SILITIA + DJ Leire Etxano**, 22:00etan, Abadetxean.

### Ekainaren 30ean

#### ATXONDO sanpedroak

**Panpotx (umeentzako makilajea, ile-apainketa, jolasak)**, 17:30ean, plazan.  
**Herri afaria**, 20:00etan, plazan (bakailao txapelketa eta patata tortilla txapelketa).  
**Laiotz taldea**, 22:30ean.

#### BERRIZ sanpedroak

**Tribiala**, 12:00etan, udaletxeko lorategian. 12 urtetik gorakoentzat.  
**Umeentzako parkea: jumping, puzgarriak...** eskolako patioan (12:30-14:00/16:00-19:00).

#### Nesken XII. mutilen XIII. eta mistoen IV. Frontenis

**Txapelketako finalak**, 16:30ean, Olakueta frontoian.  
**Berrizko Udalaren lau eta erdiko txapelketako finala**, 19:00etan, Olakueta frontoian.  
**Luis Fercán**, 20:00etan, Elizondo plazan.  
**DJ Roka eta DJ Kuku**, Elizondo plazan.  
**Rukula + Chuleria, joder! talden kontzertua**, 22:00etan, txosnagunean.  
**Bingoa**. Txosna batzordeak antolatuta.

#### DURANGO sanpedroak

**Txistulariak**, 09:00etan, Tabira auzoan.  
**Bakarrizketa saioa: Gorka Madrazo, Erika Olaizola, Kepa Errasti eta Maite Lopez**, 19:00etan, Ibaizabal ikastolako lorategian.  
**Tortilla jana**, 20:00etan, Tabiran.  
**DJ Maratoi herrikoa**, 21:00etan. Izen ematea: [tabirakojaiak@gmail.com](mailto:tabirakojaiak@gmail.com).

### Uztailaren 2ra bitartean

**DURANGO erakusketa 'La Divina Commedia' (Komisarioa: Massimiliano Tonelli)**, Arte eta Historia Museoan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Bubalkan talde madrildarra.

## Haizetara jaialdiko musikariek Zornotzako kaleak girotuko dituzte

Gaurtik hasi eta domekara bitartean, kaleko musikaren epizentroa izango da Zornotza; bederatzi talde lehiatuko dira 10.000 euroko saria lortzeko helburuagaz

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

"Zornotzarrentzat urteko astebururik onena" heldu da, Andoni Agirrebeitia alkate ohiaren berbetan. Izan ere, fanfarreak, bandak eta musikariak erruz ikusi ahalko dira asteburu osoan zehar Zornotzako kaleetan. Giro ezin hobea egoten da Zornotzan Haizetara jaialdiak irauten duen egunetan. Nazioarteko eta Euskal Herriko bederatzi talde 10.000 euroko saria lortzeko lehiatuko dira; musikaririk onenarentzat beste 1.000 euroko saria egongo da, eta publikoaren saria ere irabazi ahalko du taldeetarikoa batek, 4.000 eurokoa. Bulbalkan

madrildarrak, Back Chat brass (Erresuma Batua), Dirty Dürüm Brass Band gasteiztarak, Gata Brass Band (Espainia), Jazz Hunters (Espainia), Harmony's (Benin), Fan-

**Euskal Herriko eta nazioarteko bederatzi talde 10.000 euroko saria lortzeko lehiatuko dira**

fare Jukepop (Belgika-Frantzia), La Saugrenue (Frantzia) eta Renniw Brass Band (Mexiko) taldeak lehia-

tuko dira aurtengo lehiaketan; gomidatu lez Dead Puppet Orchestra (Espainia), Charanga Pisando Fuerte (Espainia), eta La Kermes del Vermú (Euskal Herria) taldeak arituko dira; azken honetako kide dira Fran Lasuen eta Sandra Fdez de Agirre zornotzarrak.

Kalekoetz gainera, beste aukerak ere egongo dira asteburuan. Horrela, Harrison hotelean jam sessiona egingo du Jou González laukoteak. Horrez gainera, umeentzako ikastaroak egingo dituzte zapatuan, goiz eta arratsalde, Turukutupa gasteiztarrek; birziklatuturiko soinu instalazio interaktiboa erakutsiko dute, besteak beste.

## Mocker'sek hamahiru urteko ibilbidea etengo du, zapatuan, Zaldibarren

Talde durangarrak The Riff Truckers eta Dube taldeekin emango du agur kontzertua; 21:00etan hasiko da

**MUSIKA • A. M.**

Mocker's talde durangarrak hamahiru urteko ibilbideari amaiera emango dio zapatuan. Horretarako, agur festa antolatu dute Zaldibarko gaztetxean. *Argi egin* diskoaren kaleratzea eta hogeituztuko biraren ginga izango da zapatukoa, durangarren berbetan. "Bihotza beteta daukagu orain, benetan ederra izan da hainbeste lagun zahar eta berrigaz elkartzea... ez dugu berbarik aurkitzen jaso dugun maitasun eta laguntza guztia eskertzeko", azaldu dute. Zapatuan lagunekin ospatuko dute jaia, bai oholtza gainean eta baita behean ere. Mocker'sen aurretik, The Riff

Truckers gernikarrak eta Dube berriztarrak igoko dira taula gainera. Talde biak bidelagun izan dituzte durangarrek urteotan, gernikarrak helduagoak, eta berriztarrak gazteagoak; biek ala biek rock doinuak belauldi desberdinen kontua direla erakutsiko dute. Talde biak disko berriak aurkezteko biran dabilta azken hiletan, *Mustang* eta *Ezer ez da*. Zaldibarko gaztetxeak 20:30ean zabalduko ditu ateak kontzertuetarako. Aurretik, giroa berotzeko, disko jartzaileak egongo dira Sorgin tabernan. Kontzertuen ondoren, musika jartzailea egongo da gaztetxean, festari jarraipena emateko.



Mocker's. SARA ESTEVEZ.



Grabazioko irudi bat, Berrizko Lorentzo Recordsen.

## Gerediaga elkarteak Astola Podcast egitasmoa aurkeztu du aste honetan

Gerediaga elkartearen webgunean zazpi ikerketa lan daude entzungai; eguaztenean aurkezpen ekitaldia egin zuten

**ONDAREA • A. M.**

Gerediaga Elkarteak 2007tik dabil Durangaldeko historia eta ikerketa lanak jasotzen dituen Astola aldizkaria kaleratzen; guztira, hamasei ale publikatu dituzte. Orain, ale horietariko batzuk entzuteko formatura moldatu dituzte, hau da, podcast formatura. Zazpi dira formatura egokituriko lanak; besteak beste, Iurretako Santa Apolonian lur hartu zuen

hegazkinaren pasarte, Anboto Damari buruzko teoria ezberdinak eta Mikeldiko txerriari buruzko misterioa grabatu dituzte. Durangaldeko zazpi lagun ezagunek ipini dute ahotsa podcastetarako: Felix Arkarazok, Tere Eguskizak, Maite Berriozabalek, Maite Lopezek, Iñaki Guridik, Andoni Aizpuruk eta Esti Gonzalezek; sarreretako ahotsak Bizkaia Irratiko Miren Ezkurrak

grabatu ditu. Edizio lanak Liher Larrañaga elorriarrak egin ditu; grabazio lanak Durango Irratiaren estudioetan eta Berrizko Lorentzo Records estudioetan egin dira.

**Ekitaldia, eguaztenean**

Egitasmoa aurkezteko, Gerediaga elkarteak ekitaldia egin zuen eguaztenean, Gerediagako foruzelaian. Bertan, Felix Arkarazok, Gehi Zazpi biolontxelo taldeak eta Karrika antzerki taldeak parte hartu zuten.



# “Penagaz geratu gara, aurten ere ezingo dugulako pintxaldia kontzertuekin borobildu”

12:00etan hasita, doinu jamaikarrek hamar orduz Durangoko Tabira hartuko dute 2. Moonstomping jaialdian



**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

Durangoko Kaleko Soinuak Kalea Asintzen kolektiboak (KSKA) Moonstomping jaialdiaren bigarren edizioa antolatu du zaturako. Tabira auzoa 2 Tone, Skinhead reggae eta ska doinuz beteko da hamar bat orduz. Doinu jamaikarren zaleak diren beste kolektibo batzuk ere arituko dira biniloekin musika ipintzen bertan.

**Aurten Tabirara mugitu duzue jaialdia.**

Iaz Alde Zaharreko hainbat lekutan egon ginen pintxatzen, eta horrek lan gehiago suposatu zigun. Aurten pentsatu dugu Tabira leku egokia izango dela, errazagoa egun guztiko egitaraua egiteko. Pintxadaz gainera, Euskal Herrian sorturiko fanzine jamaikarrekin erakusketa egingo du Run Togetherreko Pablok.

**KSKAaz gainera, beste kolektibo batzuk ere gonbidatu dituzue jaialdira.**

Gutaz aparte, Mike Dekker abadiñarra egongo da; ez da kolektibo bat, baina iaz ere egon zenez aurten ere gonbidatu dugu. Gero, Zuretzako Mezua gasteiztarren txanda izango da; azken urte bietan jai jamaikar ugari muntatu dute. Euren ondoren, Big Time Sound System kolektiboaren

txanda izango da; Reggae Fever saioko aurkezlea den Naken da kolektiboko kideetarikoa bat. Gauari amaiera emateko, Pantx Records Bilboko kolektiboa egongo da; selektoreak dira zigilua.

**Iaz egin zenuten jaialdia lehenengo. Zelako balorazioa egin duzue?**

Iaz sekulako beroa egin zuten, 40 gradu ingurukoa, eta horrek ere baldintzatu zuela uste dugu. Goizean ez zebilen jende askorik kalean, eta eguerdi aldera ere Intxaurre elkartearen barrualdean egin behar izan genuen pintxada, baimen kontuengaitik; egunak aurrera egin ahala, giroa

**Euskal herrian sortutako fanzine jamaikarregaz erakusketa egingo du Run Togetherreko Pablok**

alaitzen hasi zen, kaleak bete egin ziren eta jendea oso gustura egon zen dantzan. 22:00ak arte-edo egon ginen.

**Baduzue beste ezer gehitzekorik?**

Bai, pena handia dela gaztetxerik ez edukitzea Durangon. Iaz eta aurten, gauerako kontzertuak antolatzeko asmoa genuen, eguna borobiltzeko. Durangon ez dago gaztetxerik eta udalak ez dizkigu onartu eskaturiko baimenak; beraz, ezin izan dugu kontzerturik antolatu. Pena horregaz geratzen gara, eguna borobiltzeko aukera itzela izango litzatekeela iruditzen zaigu eta.

## Gai librean

### Tik-tak

Euskal Herrian baino ordubete gutxiago da hemen, eta goizeko bostak baino minutu bi lehenago pasa da eguntentia. «Bore da», egun on. Lantzean behin zerua gurutzatzen duten kaio eta beleen erritmoan bete da jantokia gosari orduan, eta plater koloretsu baten plano itxiak estali dizu urruneko zuri-beltza. Kaixo esanez jarri da mahaian Hego Tiroleko bat, eta euskaraz jarraitu du —trauskil baina natural— sandia zati bat eskuetan hartuta. Hizkuntza gutxituen nazioarteko biltzarrean gaude, eszeptikoenak ere optimista diren enkontruan. 180 pertsona gure izenak paparrean dingoiz.

Euskal Herritik etorri gara gutxienez bi dozenatik gora eta, gainontzekoekin batera, ingelesez jasotzen



Libe Mimenza Castillo  
Kazetaria

**Hizkuntza gutxituen nazioarteko biltzarrean gaude, eszeptikoenak ere optimista diren enkontruan**

**Diz-diz egiten digu zauriak. Halere, komunitatean arnasa irribarrez hartzen duen masa alaia ere bagara**

dugu elkarren iker lerroen berri. Duda-muda eragiten dizun bla-bla. Hala xe, ideofono baten gisa bizi baituzu fe-

nomenoa. Sentsazio bat transmititzen dizun soinua da. Eleanitza izan arren —edo elebakarra ez zarelako hain zuzen— hizkuntza ezberdinetan zaren izateekin borroka konstante bat bizi duzulako: zein hautatu? Zertarako? Noiz? Nola? Eta, batez ere, zergatik?

Kafe kikararen alboan oinez doan marigorringoa bezalakoak gara hemen bildu garenak, oskol laranja jantzita beste orbain batzuk ezagutzuz geureak eta unibertsalak diren agoniaren korokak elegantziaz desfilatzen ditugun izaki ahulak. Diz-diz egiten digu zauriak. Halere, komunitatean arnasa irribarrez hartzen duen masa alaia ere bagara. Eskerrak. Iluntzeak, jendearen ageriko ilusioak eta garagardoak ezabatzen du une batez ahaztea komeni ez den beste gutzia.

Hizkuntza bat desagertzen da bi astero.

# Josu Arrinda elorriarra lider dago Euskadiko enduro txapelketan, eta cross countryan bigarren postuan geratzeko borrokatuko da

Orain arteko mailari eusten badio txapeldun geratu daiteke enduroan. Cross countryan, dagoen mailagaz, lorpen handia litzateke bigarren postuari eustea



Josu Arrinda enduro proba batean. MURUETA MOTORSPORT

**MOTORRA • J.D.**

Euskadiko enduro txapelketa denboraldiaren erdira heldu denean, Durangaldeko gidari bat 'senior trofeo' kategoriako sailkapenaren buruan dago: Josu Arrinda elorriarra. Oraindino asko geratzen da egiteko, baina orain arteko mailari

eusten badio Euskadiko txapeldun geratu daitekeela uste du 29 urteko moto gidariak.

Garaipen batez ekin zion denboraldiari, Asturiasen. Hurrengo, Nafarroan, bigarren geratu zen eta oraintsu, Elgoibarren, podiumaren gorenera bueltatu da berriro.

Orain arte erakutsitako erregularitasunari eustea izango du helburu aurretik geratzen zaizkion lasterketetan: Kantabrian, Burgosen eta Asturiasen. Baliteke azken unean beste lasterketaren bat gehitzea ere. Oraingo hau ez da Euskadiko txapelketaren borrokan dabilen

lehenengo aldia. Orain lau-bost urte, junior mailan zebilela, irabazteko aukeragaz heldu zen azken txanpara, baina azken-aurreko proban lesionatu egin zen eta hortxe amaitu ziren elorriarraren aukerak. Aurten onenen artera bueltatu da berriro. "Serioago hartu

dut eta askoz gehiago entrenatzen aritu naiz. Gainera, lehen baino patxada gehiagoz nabil orain, ez naiz jausten, eta horrek erregularra izaten laguntzen dit", adierazi du. Horrela jarraitzen badu txapelketa irabazi dezake. "Elgoibarren, esaterako, oso ondo ikusi nuen neure burua eta aldea atera nien aurkariei. Aurrekari hori ikusita, eta maila berean jarraitzen badut, txapelketa irabazteko aukera ikusten dut", gehitu du.

Elorrioren afizio handia dute moztan ibiltzeko, eta aipatzekoa da Euskadiko txapelketan beste elorriar bat ere oso maila onean dabilela: Bittor Aizpuru. Junior mailan dabil, onenen artean. Eta Peru Irazola elorriarra Espainiako enduro extreme txapelketa lehiatzen dabil estatu mailako onenekin.

**Cross countryan bigarren**

Enduroan ez ezik, cross country modalitatean ere badabil Arrinda, eta ez edozelan gainera. Euskadiko txapelketako bigarren tokian dago laterketarik gehienak joan direnean. Ez du liderra harrapatzeko aukerarik, baina aurretik geratzen diren proba bietan bigarren postuari eusten ahaleginduko da. Lorpen handia litzateke, enduroko 'senior trofeo' kategorian baino maila handiago dago eta.

## DRTren errugbi topaketako 2.810 euroak Angelman Sindromea elkarteak jaso ditu

Elkarteko kideak esker oneko agertu dira; familiei laguntzeko eta ikerketarako erabiliko dute dirua



Martitzenean egin zuten ekitaldia, DRTk Durangon duen egoitzan.

**DURANGO • J.D.**

Durango Rugby Taldeak antolatzen duen Tag Errugbi Topaketak hamakagarren aldia egin du aurten. Guztira, bost ikastetxek eta 1.469 umek parte hartu dute. Ekimena elkartasunagaz lotzen dute urtero. Aurten 2.810 euro batu dituzte, eta martitzenean DRTren egoitzan egindako ekitaldian Angelman Sindromea elkarteari eman zioten baturikoa.

"Eskerrak eman gura dizkiegu ikastetxeetako irakasle eta ikasleei, eta baita DRTri ere gudan pentsatzearen", adierazi zuen Angelman Sindromea elkarteko Idurre Baraiaetxaburuk. Dirua familiei laguntzeko eta ikerkuntzarako erabiliko dutela iragarri zuen.

CaixaBankek ere diruz lagundu du ekimena, La Caixa Fundazioaren bitartez.

## Iñaki Osa Goikoetxeak Durangon jokatu du urrian, bere agur biraren barruan

Zumaiarrak erretiratu egingo dela iragarri du asteen

**ZESTA-PUNTA • J.D.**

Iñaki Osa Goikoetxeak erretiratu egingo dela iragarri du asteen, eta bere agur biraren barruan Durangon ere jokatu du. Urriaren 9an eta 16an izango da. Egun horietan Jai Alai League-aren azken fasea hartuko

du Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak eta hantxe arituko da Osa; sailkatzen bada, txapelaren bila lehiatuko da, eta, bestela, lagun arteko partiduan. Iñaki Osa historiako zestalaririk onenetariko bat da. Buruz buruko 13 txapel ditu, eta binakako 8.



Iñaki Osa bere erretiroa iragarri zuen prentsaurrekoan. BALEIKE

# Iturzurigana tontorra gehitu diote Berrizko Amaraune mendi lasterketari

Bihar lehiatuko dute probaren bigarren aldia; iazkoa baino kilometro bi luzeagoa izango da



Iaz, lehenengo aldian, dantzariak dantza egin zieten korrikalarietara lasterketa hasi aurretik. **AMARAUNE**

**MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO**  
Berrizko Amaraune elkarteak izen bereko mendi lasterketaren bigarren aldia antolatu du zapa-turako, eta nobedade bat baino gehiagoz dator.

Ibilbideari dagokionez, aurtengoa kilometro bi luzeagoa —19 kilometro— eta gogorragoa izango da: 800ekoa barik 1.000 metroko desnibel positiboa izango du. Iazko mendi tontor biei —Sarrimendi eta Gaztelumendi— beste bat gehituko diote, Iturzurigana, eta korrikalariak hango gurutzaren ondotik pasatuko

dira. Horrela, Berrizko beste tontor "enblematiko" bat gehituko diote ibilbideari, Amarauneko Mikel Gonzalezen berbetan. "Ibilbideari luzera apur bat falta zitzaioela sentitzen genuen eta jende gehiagorentzat erakargarri egin gura genuen", arrazoitu du Gonzalezek. Maila handiagoko korrikalari gehiago batu gura dituzte, baina afizionatuak direnei eutsita. Bien arteko oreka bilatzen ahalegindu dira. "Korrikalarietara lasterketa eta bertarako prestaketa erronka lez hartzea gura dugu. Azken batean, mendi-

rako zaletasuna sustatzea dugu helburu", gehitu du.

Parte hartzaile berriak erakartzeari lotuta dago aurtengo bigarren nobedade nagusia: lehenengo hiru sailkatuentzat diru sariak egongo dira: 150 euro, 100 euro eta 50 euro, hurrenez hurren.

Lasterketa bihar izango da, zapatua. 10:00etan hasiko da, Elizondo plazan, eta hantxe bertan amaituko da. Lasterketa martxan den bitartean, umeei begirako jolasak eta lasterketak egingo dituzte. Korrikalarien artean zozketak ere egingo dituzte.

# Elorriok denboraldia borobildu du Euskal Kopa irabazita

Elorriok penaltietan menderatu zuen Eibar. Izar Zubiaga atezainaren lana erabakigarria izan zen garaipena lortzeko



Elorrio partiduaren ostean garaipena ospatzen.

**FUTBOLA • J.D.**

Elorrio futbol taldeak Euskal Kopa irabazi du eta bestela ere bikaina izan den denboraldia borobildu du horrela. Joan zen domekan, Elorriok eta Eibar C-k indarrak neurtu zituzten Laudioako futbol zelaian. Arauzko 90 minutuak banako berdinketaz amaitu ziren. Elorrioren gola aurten Urrezko Baloia irabazi duen Itsasne Larruskainek sartu zuen, 80. minutuan. Baina Eibarrek segituan berdindu

zuen norgehiagoka. Azkenean, penaltietan erabaki zuten finala eta Elorrioko Izar Zubiaga atezainaren lana erabakigarria izan zen. Zubiagak sekulako geldiketarik egin zituen eta Eibarrek penalti bakar bat ere ezin izan zuen sartu. Elorriok jaurtitako hirurak sartu zituen.

Euskal Ligan ere bikain aritu dira elorriarrak. Hirugarren tokian amaitu dute eta azken txanpara arte mailaz igotzeko borrokan aritu dira.

## Jokaldia

### Bukatuta, martxan!

Bukatu da, bukatu da, bukatu da "se acabó" ... Abestiak dioen moduan, amaitu da 2022-2023 denboraldia. Pandemia ostetik normaltasunera itzuli gaituen denboraldia bukatu da.

Emaizta aldetik, gure inguruan denboraldi ona izan da. Orokorrean, emaitza onak izan dira nagusi eta alde horretatik gustura egoteko moduan gaude.

Teknei Zorrotza ST aurten ere play offetan azkeneko minutura arte egon da borrokan. Itzela izan da denboraldia, eta baita bukaera ere, nahiz eta finalerdietan kanpoan geratu diren zornotzarrak. Gainera, kluba hazten ari da apurka-apurka. Urtero zenbakiak gora doaz eta gaur egun maila guztietan ditu taldeak, bai nesketan bai mutiletan.



Unai Zamalloa  
Zubiaurre  
Saskibaloia

**Teknei Zorrotza play offetan azken unera arte egon da borrokan. Itzela izan da aurtengo denboraldia**

**Datorren denboraldira begira daude denak orain. Laster, denboraldiaurrea etorriko da berriro**

Tabirako itzel aritu da nesketan. LF-2ra sartzeko azken pausoa emateko ez da sailkatu, baina bere aukerak izan ditu eta gogor borrokatu da. Oinarria sendo dago.

Mutiletan, oster, urte gogorra izan dute. EBA mailan mantentzeko, azken

partidara arte aritu dira. Baina ez dute lortu. Datorren urtean, zer? Taldearen oinarria eratuta dago gutxienez.

Aurtengoa amaitu da eta datorren denboraldira begira daude orain gure klubak. Taldeen egitura indartu, jokalaria eta entrenatzaileak lotu, eta bukaerako hausnarketa ezberdinen emaitzekin 2023-2024 denboraldia finkatu. Laster, berriro ere denboraldiaurrea etorriko da eta konturatu orduko ligak martxan dira berriro.

Bien bitartean, badago saskibaloiaz gozatzeko modua Durangaldean. Batzuek Udako Campusetan parte hartuko dute, beste batzuk lagunekin eta kuadrillan arituko dira han eta hemen... kontua da oportetean ere saskibaloian jokatuko dugula.

Ondo ibili denok, gozatu saskibaloiaz eta bueltara arte!

# DURANGALDE

## 'Mañariko hamahiru alabak'

1937an, gerra zibila amaitu eta egun gutxira, militar frankistek Mañariko hamahiru emakume atxilotu zituzten. Atxilotetek helburu argi bat zuten: agintean nor zegoen argi uztea. Familiaren eta etxearen kudeaketaz emakumeak arduratzen zirenez, atxiloteta haiek kolpe gogorra izan ziren mañariarentzat. Frontoiaren atzealdean emakume haiei eskainitako horma irudi bat dago.

1937ko urtarrilaren 24tik urriaren  
15era Frankismoak Kartzelaratutako  
emakumeen omenez

- Maxima Arteaga Bilbao
- Irene Bizkarra Usabiaga
- Julia Bizkarra Usabiaga
- Carlota Goiti Zugazagoitia
- Clara Goiti Zugazagoitia
- Angela Aldekoa Orozketa
- Agueda Goiti A.
- Ramona Barrenetxea Sagarraga
- Jesusa Kapanaga Artamendi
- Miran Edurne Bustinza Ituarte
- Salome Arteaga Uriarte
- Antonina E.

# KO TXOKOAK ?



## Otxandioko Errebal kalea

Mendeak joan mendeak etorri, otxandiarrek bikain zaindu dute herriko Alde Zaharra. Errebal kalean barneratuta, ez da gatxa sentitzea norbera hainbat mende atzeragoko giroan sartzen dela. Urrutira bidaiatu barik, irudimenari eskerrak posible delako urrutiko denboretara bidaiatzea. Erdi Aroko Otxandiora, adibidez.

# UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak  
irailaren 15era arte

Informazio gehiago  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

## 2 KATEGORIA, 4 SARI

### DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

### DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



## Botikak

**BARIKUA, 23** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 24** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SANTAMARIA,  
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 25** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 26** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 27** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 28** 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 29** · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



### GOZATU GOZATEGIA

Zorionak, **Jone (940. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Zorionak, **Ane!** Juerga on batekin ospatu zure urtegunere. Mosu handi bat!



Ekainak 24an gure mutikoak 9 urte egiten ditu jada. Zorionak, maitia! Bizipoz horrekin jarraitu, laztana. Besarkada handi bat, Laida, aita eta amaren partez. Maite zaitugu!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 14° / 31° ☀

ASTELEHENA ↓ 17° / 23° ☁

EGUAZTENA ↓ 15° / 26° ☁

DOMEKA ↓ 18° / 26° ☁


MARTITZENA ↓ 16° / 24° ☁

EGUENA ↓ 15° / 25° ☁

## Eskelak



**Alberto Barrenetxea Etxebarria**



Ohore bat izan da Alberto zure borroka laguna izatea. Erraza izan da zu maitatzea. Garaipenaren egunerarte burkide!

Maite zaitugu!  
Muxu eta besarkada handi bat senide, lagun eta kideei.  
Agur Eta Ohore Alberto!



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA  
ODONTOLOGIA PEDIATRIA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA  
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

# "Tatuajea azpikultura bat zen eta gaur egun merkatu bihurtu da"

Martin Elgezabalek Sendo Tattoo proiektuari ekin zion Zornotzan, urte hasieran; mendatakoak rock and roll gune bat sortu gura izan du, tatuajeak eta musika uztartzen dituen txokoa



**Martin Elgezabal Triguero**  
Tatuatzailea  
MENDATA | 1995

**ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI**

Tatuajea eta musika eskutik helduta doaz Martin Elgezabalen bizi proiektuan. Agur musika taldeko bateria-jotzailea da eta tatuatzaile lez proiektu pertsonala ipini du martxan Zornotzan. Ilustrazio ikasketak Gasteizen hasi zituen, eta Londresen amaitu. Han Minesweeper Collective ezagutu zuen, mundu osoko artistak batzen dituen kolektiboa.

Tatuajea, musika eta ilustrazioa uztartzen ditu Sendo Tattoo-k.

Bai. Betidanik izan naiz oso musikazalea. Backbone taldean ibilia naiz, eta orain Agur taldeagaz nabil. Musika eta irudia bateratu

ditut beti, bai diskoen azalak bai kartelak eginez. Tatuajeen istorioa geroago etorri zen, ilustrazio ikasketak egiten ari nintzela. Ikusmina

**Tradizio amerikarraren eragina oso nabaria da, baina ukitu japoniarra, tribala... ematea gustatzen zait**

sortu zidan. Hala ere, oso berandu hasi nintzen nire gorputza tatuatzen, 21 urteagaz. Tatuajeen mundua ezagututa beldurra galtzen

duzu. Sendo Tattoo, gura barik, natural sortu den proiektua da. Lagunen diskoak ere badituz hemen, saltzeko. Batzen gaituen gune edo sare bat sortu gura nuke.

**Musikari ala tatuatzaile zara gehiago?** Musikazalea naiz (barrez). Musika-ria izaten ahalegintzen den tatuatzailea.

**Tatuajea eta musika eskutik helduta doaz zuretzat?**

Bai. Sendo Tattoo rock and rolla da. **Zelan definituko zenuke zure estiloa?** Etengabe ari naiz bila. Tradizio amerikarraren eragina oso nabaria da, baina ukitu japoniarra, tribala... ematea gustatzen zait, batzuetan puntillismoa ere sartuz. Fusioak

egiten ditut askotan, eta diseinu grafikoagaz jolasten naiz irudi berri bat sortzeko, funtsa *old school* edo tatuaje tradizionala izan arren. Esperimentatzea gustatzen zait.

**Zelan egin zenuen salto ilustraziotik tatuajeetara?**

Modurik piratenean. Gasteizko Errekaleorren izan nuen lehenengo kontaktua tatuaje makina batez. Han bizi zen lagun batek tatuaje bat egingo ote nion galdetu zidan, eta kita zelan muntatzen zen azaldu ondoren egin nion. Oraindino laguna dut! Geroago Bermeoko estudio batean trebatu nintzen. 2018koak dira nire lehenengo flash tattoo-ak.

**Jarraitzen duzu ilustrazioagaz?**

Bai. Kamistak, logoak, menu kartak, disko azalak, liburuak... denarik egin dut, tatuajeekin zerikusirik ez duten hainbat estilo landuz. Asko betetzen nau eta horretan jarraitzen dut denbora dudanean.

**Gaur egun tatuajea oso eskuragarri dago eta bere kutsu magiko hori galdu du**

**Tatuajea ondo pentsatu beharreko gauza dela diozu.**

Tatuajea betiko da eta zure nortasuna markatzen du. Ez naiz inor ondo edo txarto dagoen esateko, baina ahalegintzen naiz aholkuak ematen. Bezero batzuek argi dute zer gura duten, baina badira apur bat nire esku uzten dutenak, eta elkarregaz lantzen dugu tatuajea.

**Egin gura zenukeen tatuaje hori?**

Bodysuit eta traje bat.

**Gaur egun gatxa da batere tatuajerik ez duen inor aurkitzea.**

Bai. Tatuajea azpikultura bat zen eta gaur egun merkatu bihurtu da. Orain, aho biko arma da. Gaur egun oso eskuragarri dago eta baliteke kalte ere egitea; tatuajeak kutsu magiko hori galdu du. Bali-teke ni ere arazo horren zati izatea. Baina beti ahalegindu naiz merezi duen moduan egiten tatuajea, aurretik egon direnekiko errespetuz. Gu baino lehenagotik dago tatuajea hemen.

**Lau-hortza**

Markel Onaindia Txabarri Kazetaria



**Matienako ezkertia**

Fariasaren kea eta Varon Dandy kolonia usaina zeuden airean, frontoietan zita inportanteetan egoten zen giro maskulino hori. Jendearen barbaroa eta zirriparra. Gu, 10 urterekin besterik ez, nerbioso, eskualdeko pilota txapelketako finalerdia baitzen. Landerrekin bikote nintzen, eta aurkari Mikel eta Jon abadiñarrak. Partidua hasi aurretik, entrenatzailea isilean hurreratu eta agindu bat eman zidan: Mikel ezkertia zenez, ateratzeko sakea zabalera. Estrategiak funtzionatu zuen hasieran, baina Matienako gogaikarri hark ez zuen amore eman eta bataila latza eman zigun. Ez genuen irabazi, eta gerora ere uste dut ez niola inoiz irabazi Urrutiari. Hori bai, lagun on bat irabazi nuen.

Gaztetan militantzia esparruetan koinziditu genuen berriro, eta hango eztabaidetan ere gerra makala berea. Hala ere, txiste txarren batekin irri bat ateratzen zigun eta giroa lasaitzen zen. Badira urteak instituzioetara pasa zenetik, eta azkenean alkatetza lortu du Abadiñon. Beti bezain langile, beti besteko gogoz, beti lez gauzak lortzea posible dela sinetsita. Ez naiz ni pertsonalista, baina, zer nahi duzue esatea, zapatuan poztu nintzen beragatik. Eta bere inguru-koengatik.

Udal eraketen osteko zutabe hau PPko Carlos Garcíari buruz idaztea pentsatua nuen, Durangoko gobernuaren giltza eman diotelako. Baina, uste dut izango dugula horretarako astia, datozen lau urteetan kaparrada galanta emango digulako. Gaur, benetan merezi duen jendeaz idatzi nahi dut. Urrutia, segi bataila ematen politika eskumarekin egiten duten horiei.

**SAN ROKE BARRIA DURANGO**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasioa

**225.000€-tik aurrera+BEZ**

Udazkenean obra hasiera

**KALERATZE prezio bereziak**

Zure etxean zaude. Estás en tu casa

**946 46 20 41**

www.sukia.com